

# **Galesa eta euskararen presentzia komunikabideetan**

**Unai Kontxa Olabarrieta**

## **AURKIBIDEA**

**1. Sarrera.**

**2. Galesi buruzko informazio orokorra.**

### **I. GALESAREN EGOERA ETA GARAPENA**

**3. Galesaren historia orokorra eta gaur eguneko egoera.**

**3.1. Hasiera**

**3.2. Galestarra hemeretzi eta hogeigarren mendearen hasieran.**

**3.3 Non daude galestar hizlariak gaur egun?**

**3.4. Garapenaren giltzak.**

**3.5. Galestarraren diru laguntzak.**

**3.6. Galestarra eta euskara.**

**3.7. Galestarra legediaren aurrean.**

3.7.1. Galestarraren Legea eta arlo publikoa.

3.7.2. Zer dira Galesa sustatzeko egitasmoak?

3.7.3. Hezkuntza

3.7.4. Arlo pribatua eta bolondresena

3.7.5. Legearen garapena

3.7.6. Europar legedia

3.7.7. Galestarraren legea eta euskararen legeak

**4. Galestar hezkuntza sistema eta galestar hizkuntza.**

**4.1. Haurrentzako hezkuntza.**

**4.2. Galestarra eskolan.**

**4.3. Eskolan galestarra irakasten.**

**4.4. Galestarraren irakaspena hezkuntza ertainean.**

**4.5. 16 urtetik aurrerako irakaskuntza.**

4.5.1. Goi mailako hezkuntza

4.5.2. Galestarra helduentzat

**4.6. Galestar hezkuntza eta euskal hezkuntza.**

**5. The Welsh Language Board / Yr Iaith Gymraeg eta Galeseko iritzi publikoa.**

**5.1. Euskal Herrian Welsh Language Board-ek izan ditzazkeen antzekotasunak.**

**5.2. Galeseko iritzi publikoa eta hizkuntza gatazka.**

### **II. KOMUNIKABIDE DIGITALAK ETA HIZKUNTZA GUTXITUAK**

**6. Teknologia berriak eta hizkuntza gutxituak.**

**6.1. Azken urteetako iraultza.**

**6.2. Teknologi berriak.**

**6.3. Teknologi berriak eta telebista.**

## **7. Teknologia berrien zenbait adibide**

- 7.1. Iraultza honen adibide bat: zinema digitala hizkuntza gutxitu eta produkzio txikiaren kalterako?**
- 7.2. Beste adibide bat: irrati digitala, hizkuntza gutxituen onerako?**
- 7.3. Teknologi berriak eta hizkuntza gutxituen irakaskuntza**

## **8. Galesa eta teknologia berriak.**

- 8.1. Telebista.**
- 8.2. Irratia.**
- 8.3. Galesa eta informatika materiala.**
- 8.4. Egunkari eta aldizkariak.**

## **9. Euskara eta teknologia berriak.**

- 9.1. Telebista.**
- 9.2. Irratiak.**
- 9.3. Euskara eta informatika materiala.**
- 9.4. Egunkari eta aldizkariak.**

## **10. Galesa eta euskararen arteko konparaketa teknologia berrien inguruan.**

- 10.1. Teknologia berrien onarpena eta zabalpena gizartean.**
- 10.2. Telebistaren inguruko aldaera.**
- 10.3. Irratiaren inguruko aldaera.**
- 10.4. Informatikako erreskurtsoen inguruko aldaera.**
- 10.5. Aldizkari eta egunakariaren inguruko aldaera.**
- 10.6. Teknologi berriak ekarri dituzten aurrerapenak.**

## **III. EUSKARA ETA GALESAREN OHIZKO KOMUNIKABIDEETAN**

### **11. Gales eta Euskal Herriko komunikabideak**

- 11.1. Telebista eta hizkuntza gutxituak Euskal Herrian eta Galesen.**
- 11.2. Galesa eta euskara irratan.**
- 11.3. Euskara eta galesa prentsa idatzian.**

### **12. Gales eta Euskal Herriko komunikabideen arteko konparaketa.**

- 12.1. Euskara eta galesa duten hedapenaren inguruko konparaketa.**
- 12.2. Euskara eta galesaren aurrerapenak komunikabide munduan.**
- 12.3. Galesa eta euskararen akatsak komunikabide munduan.**
- 12.4. Euskara eta galesak dituzten aukerak komunikabideen munduan.**

### **13. Informazio iturriak.**

## **1. Sarrera.**

Lan hau hiru tal haundietan banatuta dago. Lehenengo atalean galesaren inguruko oinarritzko informazio aztertzen dugu. Honen helburua galesaren aintzineko egoera ezagutzea da, azken mendetako garapena ezagutzea eta gaur eguneko egoera aztertzea. Hiru puntu nagusi ditu atal honek, alde batetik aipatzekoa da galesaren historiaren inguruan egiten den hausnarketa. Beste aldetik galesaren hezkuntza sistemaren garapena aztertzen dugu eta gaur eguneko egoera. Azkenik galesaren lege estatusa aztertzen dugu eta honen ondorioak.

Bigarren atala teknologia berriak eta hauen eragina bai euskaran eta baita galesan ere aztertzen dugu. Atal honetan teknologia berrien aplikapenei buruzko adibide batzuk jartzen ditugu. Bigarren zati batean galesean eta euskaran duten eragina eta hizkuntza hauek duten hedapena aztertzen dugu. Azkenik hedapen honi buruzko azterketa egiten dugu.

Hirugarren atalean galesa eta euskararen presentzia ohizko komunikabideetan dago aztergai. Bien arteko konparaketa eginez eta aukerak, akatsak eta aurrerapenak bilatuz.

Lan hau egiteko, bildutako informazioan oinarritu gara, ezinezkoa izan da bai da galesaren alde lan egiten duten pertsona zein elkarteekin harremanetan jartzea. Lan hau erabilitako lanabes garrantzitsuena interneta izan da bertatik informazio gehiena jaso dugularik.

Oso zaila egin zaigu galesak komunikabideetan duen hedapenaren inguruko informazioa aurkitzea eta are gehiago komunikabide digitalei buruz ari garenean.

## 2. Galesi buruzko informazio orokorra.

Gales Europako herrialdea da, Britainia Handiko uharteko mugan dago kokatuta; 20.768 kilometro karratu eta 2.900.000 biztanle ditu. Hiriburua Cardiff da eta mugak hauek dira: iparraldean Irlandako itsasoa; mendebaldean San Jorje kanala; hegoaldean Bristolgo kanala eta Severn ibaia eta ekialdean Ingalaterra.

Erliebe malkartsua du; ipar-mendebaldean, Snowdon mazizoan, dago mendirik altuena (1.085 m). Klima oso hezea da.

Industria (siderurgia, petrolio-errefinategiak eta galbanizatuak) da ekonomiaren oinarria eta hegoaldeko kostaldean metatuta dago (Swansea, Cardiff, Newport); ondorioz, populazioaren % 75 hegoaldean bizi da. Ikatz-meataritzak garrantzi handia izan du, baina galtzen ari da egunez egun. Iparraldean eta erdialdean basogintza, abelazkuntza (ardi-aziendak) eta artisautza dira nagusi.

Populazioaren % 20 inguruk galeseraz egiten du. Ikusiko dugun bezala gero eta gehiago dira hizkuntza hau hitzegiten dutenak.

Bere historiri dagokionez, erromatarrek lurraldea konkistatu zuten (K.o. 100-400) eta mineral-baliabideak ustiatu zituzten; erromatartzea ez zen sakona izan.

V-VII. mendean eskualdea erresuma txikitari banatu eta kristautasuna sendotzen hasi zen kostaldeko kolonia irlandarren eraginez. 844-77: Rhodri Mawr Handia herria bateratzen saiatu zen. Gauza bera egin zuten Hywel Dda Onberak (910-50) eta Gruffydd ap Llewelyn-ek (1039-63), baina huts egin zuten.

Anglosaxoi eta eskandinaviarren kolonizazioa geraraztea lortu zuten. 1093-1165 bitartean normandiarrek Galesko hegoaldea inbaditu eta bertan finkatu ziren.

1194tik 1240ra Llewelyn ap Iorwerth erregeak galestarren batasuna lortu zuen. 1246-82ko epean, haren ilobak, Llewelyn ap Gruffydd-ek, gailurrera eramane zuen Gales. Baina 1282-84 urte artean Ingalaterrako Eduardo I.ak Gales konkistatu zuen; bere seme nagusiak Galesko printzea titulua eskuratu zuen (1301). XIII-XIV. mendeetan ingelesen kontrako matxinadak gertatu ziren. 1536 eta 1543ko Batasun-akten ondorioz, Gales betirako Ingalaterrarekin lotuta gelditu zen.

1588an Biblia galeseraz argitaratzeak berpizkunde erlijiosoa ekarri zion Galesko kulturari, XVIII. mendean gailurrera iritsi zena. XX. mendearen hasieran abertzaletasun galestarra berpiztu egin zen Plaid Cymru alderdia abertzalearen bidez eta 70.eko hamarkadan gorakada handia egin zen.

Baina 1979ko erreferendumean ez zen lortu autonomi estatutua onartzerik. 1997: Legebiltzar autonomoa eratzeko erreferendumean % 50,1 lagunek parte hartu zuten,

eta 6.700 botoen aldearekin, baiezkoaren aldekoek irabazi zuten. Orain arteko azkenengo autonomi prosezua martxan jarri zelarik, Asanblada Nazionala eratu zutelarik.

# **I. GALESAREN EGOERA ETA GARAPENA**

## **3. Galesaren historia orokorra eta gaur eguneko egoera.**

Atal honetan zaiatuko gara galestarraren historiaren inguruko datu esanguratsu batzuk ematen, hizkuntza honen ibilbidearen idei orokor bat egiteko eta euskararekin konparaketa egiteko orduan errezagoa izateko. Gainera hizkuntza honen historiari errebasoa egiten diogun bitartean euskararekin duen berdintasunak ikusteko parada izango dugu.

### **3.1. Hasiera**

Galestarra hizkuntza zelta da eta esan genezake bretoiaren lehengusua dela, britonikoen adarrekoa bai da. Erromatarrak Britaina Haundian sartu baino lehenagokoa da galesa. Ordura arte jasandako konkista-ahalegin guztien ondoren eta hemezortzigarren mendean independentzia galdu arren iraun egin zuen hizkuntzak. 1485-ean Enrike VII.a Ingalaterrako tronura iritsi zenetik behera egin zuen, horren agintaldian nobleziak ingelesaren alde jokatu bai zuen

Baina gaur egun hitzegiten den galestarra ez da orain dela mende batzuk hitzegiten zen hizkuntza berbera, hizkuntza geihenak bezala aldaketa ugari bizi izan ditu eta lehen hitzegiten zen hizkuntza Galestar Zaharra deitzen zaio. Gaur eguneko hizkuntza honen eratorria da eta gutxi gora behera hamaseigarren mendean hasi zen mintzatzen. Galestar Zaharra eta gaur egun hitzegiten denaren artean ezberdintasunak daude, Galestar Zaharrean gramatikazko kategoriak bereizteko eta aditzaren denbora adierazteko atzizkiak erabiltzen bai zituzten, historian jasandako sinplifikazirako bilakaeraren ondorioz, egun oso gutxi erabiltzen da.

Galestarraren lehenengo hastarna idatziak hamazazpigarren mendekoak dira eta gaur egunarte literatura aberatsa gorde du.

Zalantza gabe hau da Britaina Haundiko hizkuntza zaharrena da eta euskararekin batera Europako zaharranetariko bat da.

### **3.2. Galestarra hemeretzi eta hogeigarren mendearen hasieran.**

Hogeigarren mendearen hasieran galestarra Galeseko populazioaren erdia hitzegiten zuen. 1911ko zentsua dioenez ia milioi bat pertsona bere burua galestar hitzun bezala hartzen zuten. Dena dela, kopuru hau jeisten hasi zen modu arriskutsu batez orain dela urte batzuk arte. Baina zergaitik eman zen beherakada hau? Lau dira arrazoi nagusiak eta batzuk euskarak hemeretzigarren mendean bizitako egoeraren nahiko antzekoak dira:

- Migrazio izugarriak ematen dira nekazal eremuetatik hirira, lan bila. Hauek zirela galestarra mantentzen zuten eremu nagusiak.

- Ingelesen migrazioak barrukalderuntz batez ere nekazal eremutaruntz.
- Garai honetan komunikabideak ugaritzen hasten dira eta hauen zerbitzuak ingelesean ziren, galestarra komunikabide zein asialdiaren industria berrian baztertuta gelditzen da.
- Guzti honi gaineratu behar diogu gizartean ematen den sekularizazio prosezua, galestarrentzat tradizionalak ziren eguneroko zenbait ekintzak aldatzen hasten dira.

Faktore hauek galestar hiztunen kopuruaren jeitsiera suposatu zuten eta batez ere eragina izan zuten galestarra hizkuntza nagusia zen eskualdetan. 1991an galestar hizlarien kopurua oraindik milioi erdi baino gehiago ziren (508.098), hauek biztanleri osoaren %18,7 zirelarik. Gaur egun %20ren inguruan ibiliko dira hiztun kopurua.

Arrazoi teknikoak direla medio ezinezkoa da datu berriagoak 1991-ko datuekin konparatzea, ondoren egin diren ikerketak zentso ezberdina erabil bai dute eta datuak adierazteko beste bide batzuk erabili bai dituzte. Beraz 1981-ko datekin konparatuko ditugu. Bi garai ezberdinetako datuak konparatzen baditugu ateratzen dugun lehenengo ondorioa zera da: galestarraren jeitsiera gelditu dela eta gizartearen zenbait alorretan hiztuni gehiago daude.

Esanguratsua da 1991ko zentsua esaten du, galestar hiztunak batez ere gazte jendearen artean ugaritu direla eta hauek Galeseko etorkizuna direlarik. Adibidez, ezberdintasunak 1981ko eta 1991ko datuen artean oso argiak dira, 5 eta 9 urte arteko galestarra hitzegiten duten umeen kopurua %17,8 izatetik %24,7 izatera pasa da. 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoaren artean %18,5 izatetik %26,9 izatera pasa dira. 2001ko zentsua gauza bera dio, gazte eta umeen artean hiztuni kopurua ugaritu dela, hau batez ere fenomeno bati leporatzen dio, ume eta gazteen heren bat klaseak galesez edo modu elebidunean jasotzen bai dute.

Nahiz eta azkenengo urteetan galestarra izugarritzko gorakada bizi, ez da euskararen zenbakietara heltzen batez ere umeak eskolaratzeko orduan, heren bat bakarrik ikasten bai du galestarran edo modu elebidunez. Kasu hau Euskal Herrira ekartzen badugu izango litzateke umeen bi herenak A ereduan ikastea. Bertako egoera irakaskuntza arloan antzekotasun handia du Iparraldekoarekin, batez ere matrikulazio datuei kasu egiten badiegu.

### **3.3 Non daude galestar hizlariak gaur egun?**

Gaur egun galestar hizlarien kontzentrazio handienak nekazal eremuetan daude, eta aldiz txikiak eremu urbanoetan. Hiztun kopuru handienak duten eskualdeak Galeseko iparraldean eta mendebaldean kokatzen dira.



Esan bezala eremu urbanoetan hiztun gutxien konzentratzen den lekua da. Adibide argia Cardiff da, bertan 17.346 hiztun daude eta Cardiff eta honen inguruan hiztunen %10 bizi dira (1991-ko datuen arabera).

Eskualdeka hauek dira hiztun kopuru zein portzentaien zenbakiak:

<b>Eskualdea</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Portzentaia (%)</b>
Blaenau Gwent	1.523	2.5
Bridgend	10.159	10.3
Caerphilly	9.714	6.9
Cardiff	18.080	6.7
Carmarthenshire	89.213	54.3
Ceredigion	36.026	52.5
Conwy	31.443	29.6
Denbighshire	23.294	26.9
Flint	18.399	14.1
Gwynedd	78.733	67.3
Anglesey-ko uhartea	41.240	62.3
Merthyr Tydfil	4.237	9.3
Monmouthshire	1.631	2.3
Talbot-eko portua	23.711	19.3
Newport	2.874	2.4
Pembrokeshire	19.759	18.4
Powys	23.590	20.9
Rhonda Cynon Taff	20.042	10.5
Swansea	28.557	13.9
Torfaen	2.128	2.7
Wrexham	15.990	14.5
Glamorgan-eko arana	7.755	7.7

### **3.4. Garapenaren giltzak.**

Galesaren garapena sustatzeko aurrerapausu haundienak azkenengo 30 urteetan eman dira. Batez ere (eta lehen aipatu dugun bezala) aipagarria da gero eta gazte eta ume gehiago direla gai galestarrez mintzatzeko. Jakina denez hau hezkuntza sistemaren ondorio zuzena da, azkenengo urteetan galestar zein eskola elebidunetan ikasten duten gaztetxoek kopurua izugarri hazi bai da. Azken finean aurrera pausu hau gurasoei esker gertatu da.

Baita ere aipatu behar da bai pertsona zein elkarte ezberdinek azkenengo urteetan eginiko lana gobernuaren hizkuntza politika aldatu nahiarekin. Elkarte, pertsona eta presio talde hauek kanpaina sutuak burutu dituzte galestar hiztunen eskubideak aldarrikatuz. Hauen lana herri presioarekin batera aurrerapenak ekarri dituzte hezkuntza sisteman eta baita ere galestarra babesten duten lege berriak egiteko garaian.

Aipagarria da baita ere galestarraren presentzia gizartearen beste esparru batzuetara ere zabaldu dela, asialdiaren industria kasu. Azkenengo urteetan Folk, pop eta rock taldeen produktuen ekoizpena izugarri hazi bai da. Hauetako bakarlari zein talde askoren emanaldiak ez dira Galeseko mugetara mugatzen eta kanpora ere ateratzen dira kontzertuak ospatzera. Kasu esanguratsuen Siâm James eta Bryn Terfel-ena da, abeslari hauek adibidez zenbait emanaldi eskeini dituzte Katalunian. Baina ekoizpen berri hauek arrakasta berezia dute gazteen artean, gainera erabilgarria izaten da hizkuntzaren normalkuntza bultzatzeko.

### **3.5. Galestarraren diru laguntzak.**

1980an gobernu zentrala (Britaina Haundiko Gobernuak) zenbait diru laguntza bideratu zituen galestarraren alde lan egiten zuten zenbait elkartentzat. Elkarre hauek National Eisteddfod, Welsh Books Council, Urdd Gobaith Cymru eta Mudiad Ysgolion Meithrin izan ziren. Laguntza hauek galestar hezkuntza sustatzeko bideratu zuten.

Gaur egun laguntza hauek Welsh Language Board elkarteari zuzentzen dizkiote, honek laguntza hauek gestionatzen dituelarik. 2000 eta 2001 urteetan Welsh Language Board 2,5 milioi libera zuzendu zituen galestarraren normalkuntza bultzatzeko ekintza ezberdinak laguntzeko eta beste 2,1 milioi libera galestarraren irakaskuntza laguntzeko erabili zuten.

### **3.6. Galestarra eta euskara.**

Galestarra eta euskararen ibilbidea konparatzen badugu antzekotasun haundiak aurkitzen ditugu, baina baita ere ezberdintasun haundiak. Euskaren etsai eta oztopo nagusia erabaki politikoak izan badira galesari erabaki politikoak ez diote aparteko kalterik egin. Galestarraren oztopo nagusia gizartearen sekularizazioa izan da, kontutan hartu behar dugu Britania Haundian industrializazioa ia bi mende lehenago hasi zela eta beraz migrazioak eta gizartearen aldaketak baita ere. Beraz Euskal Herrian baino posezu luzeago bat bizi izan du.

Antzekotasunak aurkitzen ditugu batez ere hiztun konzentrazioak identifikatzeko garaian. Hiztun gutxien dauden lekuak industri eremu eta eremu urbanoak dira, bertan etorkin kopuru haundienak bai daude. Aldiz hizkuntzari hoberen eutsi dioten eremuak nekazal eremuak izan dira, bertan migrazio fenomenoak eragin txikiago izan bai du eta gizarte hauetan ohiturak gordetzea errezago suertatzen bai da.

Geografikoki hiztun konzentrazio hauek aztertzen baditugu antzeko egoera aurkitzen dugu. Hiztun kopuru haundienak barnekaldean kokatzen dira eta aldiz kopuru txikiak mugen ondoan daude herrialde zein eskualdetan. Jakina da eskualde hauek beste kulturekin harremanak izateko aukera gehiago dituztela.

### **3.7. Galestarra legediaren aurrean.**

Galestar hitzunen inguruan egin zen lehenengo legea 1967-ko Welsh Language Act da. Lege hau babesten zuen galesaren erabilera bai korteetan eta baita ere administrazio publikoan. Baina galestarra babesteko egin den lege garrantzitsuena 1993-koa da.

Lege honek status berbera ematen dio galestarra eta ingelesari eta izugarrizko jauzia supotzen du hizkuntzaren normalkuntzan. Laburtuz, hiru dira legeak onartzen dituen gauzak:

- Bermatzen du galestarra eta ingelesaren presentzia, zerbitzu publikoen eskeintzan dagokionez.
- Lurralde osoan galestar hitzunei bere hizkuntza erabiltzeko eskubide osoa ematen die.
- Welsh Language Board-en (Hizkuntza Galesaren Kontseilua) sorrera iragartzen du, aurreko legeak bete daitezela ziurtatzeko eta galestarraren erabilera bultzatzeko eta errezteko lana bururtuko duena.

Garrantzitsua da aipatzea zer nolako garrantzia duen Welsh Language Board legean eta zer nolako boterea eskeintzen zaion elkarte honi. Beraz hau da galesaren erabilera eta presentzia benetan arautzen duen lehenengo legea ez bai da mugatzen eskubideak aldarrikatzera baita ere bermatzera.

### 3.7.1. Galestarraren Legea eta arlo publikoa.

1993ko legea ondo zehazten ditu zeintzuk diren Welsh Language Board-ek eman beharreko urratsak eta baita ere arlo publikoko erakundeak eman beharrekoak. Lege honi lotuta daude udal erakundeak, osasun arloko erakundeak eta gobernu agentzia ezberdinak, honen barnean ere sartzen dira Gales kanpoko erakundeak ere. Erakunde guzti hauek lotuta daude galesean egiteko lana eta galesaren inguruko egitasmo ezberdinak martxan jartzera.

Egitasmo hauen helburua zerbitzuak galesean ematera izaten da. 1999ko urtearen hasieran 100 egitasmo baino gehiago martxan jarri dira, hauen artean Galesko 22 konderriak daude, Anglesey-tik Monmouthshire-raino. Beste 120 egitasmo martxan jartzeko prest daude oraindik ere.

Egitasmo hauek lehendabizi Welsh Language Board-ek (Hizkuntza Galesaren Kontsilua) onartzen ditu eta honen ostean herri galdeketa egiten da. Galdeketa hau normalean loteslea da eta beraz kontutan hartzen da egitasmoa martxan jartzeko garaian.

Prosezu guzti hauek esan bezala Boardek gidatzen ditu. Urtero erakunde bakoitzak Welsh Language Board-en aurrean kontuak eskeini behar ditu, Board-ek kontutan hartzen duelarik erabiltzaileen kexak. Lan hau egiteko Welsh Language Board aditu inpedienteen laguntza jasotzen du.

### 3.7.2. Zer dira Galesa sustatzeko egitasmoak?

Egitasmo hauek egoera simple bati erantzuna ematen diote, galestar hiztunak gero eta gehiago dira, beraz hauek eskubidea daukate ingeles hiztunak bezala administrazio barneko prozesuak bere hizkuntzan egiteko. Honako zerbitzuak dira:

- Pasaporte edo gidatzeko baimenaren eskaera.
- Zergen informazioa jasotzeko eskubidea.
- Aholkuak edo laguntzak jasotzea “Lan Bulegoetan”.
- Udaleko akordioen informazio.
- Ura, gas, elektrizitatea eta telefono oharrak.

Legearen arabera zerbitzu hauek bakarrik bakoitzaren erabaki indibidualari lotuta daude.

### 3.7.3. Hezkuntza

Hezkuntzaren arloko programak 1993ko legearen arabera Local Education Authority-ren esku daude. Honek hezkuntza arloko programa eta egitasmo nagusiak prestatzen ditu (Welsh Education Scheme), beti ere Welsh Language Board-en gidaritzapean.

### 3.7.4. Arlo pribatua eta bolondresena

1993ko Galestarrar Hizkuntzaren Legeak ez ditu zuzeneko erantzunkizunak ematen bolondres erakunde edo arlo pribatuan lan egiten duen jende zein elkartei, baina arlo hauek modu ez zuzen batez ere behartutak daude zenbait arau betetzera.

Elkarte edo pertsona hauek aholkua edo zerbitzuak eskatzen baldin badiote administrazioaren edozein organuari, organu horrek duen programaren eskaeretara lotuta dago.

Adibidez, udaletxe batean eskatzen baldin badute eraikin bat egiteko baimena eta udaletxe horren programa baldin badio eskaera guztiak galestarrez egin behar direla, nahiz eta hori ekimen pribatua izan eskaera galestarrez egitera behartutak daude.

### 3.7.5. Legearen garapena

Jaiotze eta heriotz egiastariak oso dokumentu pertsonalak dira eta hauek Gales kanpoan ez egiteak modu elebidun batez gatazka eta eztabaida iturri iraunkorra izan da galestar gizartean. Hau zela eta, Welsh Language Board-ek Britaina Haundiko

Gobernuari proposamen bat luzatu zion legea aldatzeko eta jaiotze eta heriotzak galesez egin zezaten egiaztariak, nahiz eta gertaera Ingalaterran izan.

Britaina Haundiko gobernuak onartu zuen 1998ko ekainean legea aldatzea, proposamen hau inadarrean jartzeko.

### 3.7.6. Europar legedia

Galestarra Europar Elkartean hizkuntza gutxitua bezala onartuta dago eta Erresuma Batuko Gobernuak 2000ko martxoan Hizkuntz Gutxitu edo Erregionalen Karta Europarra sinatu zuen.

Karta hau sinatu ostean parlamentuak onartu zuen eta onespen honekin batera 35 neurri hartzea erabaki zuen, karta honek lotzen zituen konpromezuei erantzuteko. Gobernuak Europar Kontseiluari jakinarazi zizkion 35 neurri hauek Karta berrezteko garaian.

Galestarra ez da Erresuma Batuko hizkuntza gutxitu bakarra, Hizkuntz Gutxitu edo Erregionalen Europar Kartak bere 3. atalean dio Erresuma Batuko hizkuntza gutxituak diela galestarra Galesen eta gaelikoa Eskozian. Ostiral Santuko akordioan, irladar eta britaniar gobernuen artean sinatutakoa, antzeko ekarpena egiten zuen irlandar gaeliko eta Ulstereko eskoziarraren inguruan. Akordio honen oinarria europar legedian dago, parada berdintasuna eta giza eskubideak bermatuak izan daitezten.

Hizkuntza Gutxitu edo Erregionalen Europar Kartak 1992-ko azaroaren 5-ean indarrean jarri zen. Orain arte sinatu edo/eta berrestu duten estatuak ondokoak dira: Austria, Kroazia, Txipre, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, Hungaria, Islandia, Liechtenstein, Luxenburgo, Malta, Holanda, Norvegia, Romania, Eslovenia, Espainia, Suedia, Suitza, FYR Mazedonia eta Ukraina.

### 3.7.7. Galestarraren legea eta euskararen legeak

Ikusten den bezala Galesen Euskal Herrian ez dugun gauza bat dute, batasun administratiboa eta honekin batera legedi batasuna. Hau euskaltzaleek askotan komentatzen duten bezala, atzera pausu bat da eta euskararen normalkuntzarako beharrezkoa da lurralde osoan legedi bakarra izatea.

Galeseko legearen oinarri nagusia arlokako banaketa da, arlo bakoitzak programa bat martxan jarri behar du hiztunen eskubideak bermatzeko. Arloz hitzegiten dugunean administrazioaren arlo ezberdinei buruz ari gara, adibidez udalerrri bat edo osasun zerbitzua dira arloak. Esan bezala arloka banatzen da baina baita ere aipagarria da politikatik kanpo utzi nahi dutela legearen aplikapena, lan hau Welsh Language Board-en ezku gelditzen delarik. Welsh Language Board edo Hizkuntza Galesaren Kontseilua lehen esan dugun bezala teknikari independenteak osatzen dute, hauen lana administrazio arlo bakoitzaren programak martxan jartzea delarik, aholkua ematea eta hiztunen eskubideak bermatzea.

Beste aldetik ere aipagarria da hizkuntza politikaren inguruko diseinua oso sakona dela eta oinarria programak direla. Beti ere hauek herriaren onespina bilatzen dutela, martxan jartzen bai dira herri kontsulatak egin ostean.

Galeseko legea antzekotasun haundia du bere filosofian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa indarrean dagoen legearekin, azken finean bai Gales eta baita hiru herrialde hauetan dagoen legearen filosofia histunen eskubideak bermatzea bai da. Baina Galeseko legeak gehiago sakontzen du eta nola errespetatu behar diren eskubide hauetan sakontzen du, horretarako martxan jartzen duelarik Welsh Language Board.

## 4. Galestar hezkuntza sistema eta galestar hizkuntza.

### 4.1. Haurrentzako hezkuntza.

Galesen eskola aurreko hezkuntza, beharrezkoa ez dena, Mudiad Ysgolion Meithrin-  
ren (Galeseko haurtzaindegi galestarren elkarte nazionala) ezku dago. MYM-ek bi  
zerbitzu moeta eskeintzen ditu. Lehenbiziko zerbitzua Cylchoedd Ti a Fi du izena eta  
zuzenduta dago 6 hilabete eta eskolaratzeko adin artean dauden haurrentzat eta hauen  
gurasoentzat. Bigarren zerbitzua Cylchoedd Meithrin du izena eta 2 urteko umeentzat  
dago zuzenduta eta hau haurtzaindegi bat da.

Azkenengo urteetan ,eta demografi joerak aztertu gabe, arlo honek gorakada  
garrantzitsua bizi izan du, hauek dira udalerrri bakoitzean duten talde kopurua:

udalerrria	Talde zenbakia
Swansea	33
Blaneau Gwent	9
Glamorgan-eko aran	19
Cardiff	46
Caerphilly	56
Carmarthen	119
Newport	14
Neath Port Talbot	35
Ceredigion	90
Conwy	67
Denbighshire	44
Flintshire	18
Gwynedd	176
Merthyr Tydfil	19
Monmouthshire	6
Bridgend	25
Pembrokeshire	36
Powys	57
Rhondda Cynon Taff	66
Torfaen	11
Wrexham	22
Anglesey	66

### 4.2. Galestarra eskolan.

Galestar irakasgaia Kurrikulum Nazionalean agertzen da eta 1990-ko Hezkuntza  
Legian onartu zen. Bigarren hezkuntzako eskoletan sei dira galestarrez ematen diren

irakasgaiak, baina hau galestar eskoletan. Eskola ez bada galestar hiztunena galesa bigarren hezkuntza bihurtzen da.

1990-ko legearen arabera galestarra derrigorrezkoa da 14 urtetik aurrera duten ikasleentzat. Baina 1999-ko legeak derrigortasun hau bost urtetik aurrera derrigorrezkoa bihurtu zuen.

### **4.3. Eskolan galestarra irakasten.**

Galestarra irakasten duten irakasleei Athrawon Bro deitzen zaie, hauek Kurrikulum Nazionalaren arabera irakasten dutelarik. Lokal mailako hezkuntza zuzendaritzek (LEA) Athrawon Bro taldea izaten dute, lehenengo edo/eta bigarren hezkuntza lan egiten dutenak eta hauen lana eskolei laguntza eta aholkua ematea izaten da, galestarra kurrikuluma dioen eran irakas dezaten.

Gaur egun Athrawon Bro-ak LEA-ri eskeintzen dioten bere zerbitzuak baina diru laguntzak Welsh Language Board-etik jasotzen dute. 2000/2001ko kurtsoan izandako laguntza 2,1 milioi librakoa izan zelarik.

### **4.4. Galestarraren irakaspena hezkuntza ertainean.**

1944ko lege batek baimena ematen zioen hezkuntza lokal zuzendaritzeari irakaskuntza (LEA) ertaineko galestar eskolak irekitzeko. Hau guraso talde ezberdinen presioari esker gertatu zen, lehenengo eskola 1947an ireki zen Llanelli herrian. Hasiera batean eskola hauetara bakarrik galestarra ama hizkuntza bezala zuten umeak zihoazten, baina 1960 eta kontutan hartuz eskaera gero eta gogorragoa zela, eskeintza zabaldu zen galestarra ama hizkuntza bezala ez zuten umeei ere.

2000/2001ko kurtsoan umeen %25 galestar eskolara joaten ziren. Hauetako gehienak galestarra ama hizkuntza bezala ez zuten etxetatik zihoazten.

Kurtso horretan Galesen lehen hezkuntzako 440 ikastetxe galestar edo elebidunak zeuden. 51.087 ume inguru zeuden galestarra bere eskolan ikasten. 6.860 ume eta gazte inguru dute galestarra bere lehenengo hizkuntza bezala eta beste 223.328 bigarren hizkuntza bezala dute.

Bigarren hezkuntzako 229 eskolen artean, 72 irakasten dute galestarra lehenengo hizkuntza eta bigarrena bezala, beste 157 eskoletan galestarra bigarren hizkuntza bezala erakusten dute. Guztira bigarren hezkuntzako 52 eskola galestar hutsez eskeintzen dute beraien eskolak.

Galestar eskolak edo eskola elebidunen kokaera eta zenbakia.

<b>udalerrria</b>	<b>Lehen hezkuntza</b>	<b>Bigarren hezkuntza</b>
Swansea	9	1
Blaenau Gwent	1	0



Glamorgan-eko arana	4	1
Cardiff	11	2
Caerphilly	9	1
Carmarthen	132	8
Newport	1	0
Neath Port Talbot	6	1
Ceredigion	75	7
Denbighshire	18	2
Flitshire	5	1
Gwynedd	82	17
Merthyr Tydfil	2	0
Monmouthshire	1	0
Bridgend	4	0
Pembrokeshire	33	1
Powys	23	7
Rhonda Cynon Taff	16	4
Torfaen	2	1
Wrexham	6	1
Anglesey	51	5
Conwy	12	2

#### **4.5. 16 urtetik aurrerako irakaskuntza.**

Galesen 16 urtetik aurrera jasotzen den hezkuntza sei adarretan banatuta dago, beraz eskeintza galestarrez egitea oso zaila da eta eskaintza galestara hiztun ugari duten zonalde tradizionaletara mugatzen da, dena dela piskanaka eskaintza hau zabaltzen ari da eta eskaria baita ere.

Baita ere zenbait ikasle ez dute 16 urtekin ikasten jarraitzen eta lanera joaten dira, hauek garrantzitsuak bilakatzen ari dira lan merkatuan galestarraren presentzia garrantzitsuagoa izateko.

##### 4.5.1. Goi mailako hezkuntza

Hiru dira goi mailako hezkuntzako erakundeek galestarrez eskolak eskeintzen dutenak edo gutxienez galestara irakasgaia bezala eskeintzen dutenak. Hiru hauek dira: Trinity College Carmarthen; Galeseko Unibertsitatea, baina bi kanpusetan Aberystwyth eta Bangor-en.

##### 4.5.2. Galestara helduentzat

Gero eta gehiago dira galestar klaseak eskatzen duten helduak. 2001an 24.000 inguru ziren klaseak jasotzen zutenak. Hauek normalean lokal mailako elkartetan jasotzen dute klaseak.

#### **4.6. Galestar hezkuntza eta euskal hezkuntza.**

Zaila da horrelako konparaketa egitea bakarrik azaleko datuak edukiz eta lekuan bertan egoera ezagutu gabe. Baina zenbait antzekotasuna daude, adibidez ikusten dugun bezala, galesez ikasten jarraitzea kursoak aurrera doazten heinean gero eta zailagoa da.

Hau dela eta lehengo hezkuntzan eskeintza asko dago eta aldiz unibertsitatean gero eta zailagoa. Dena dela datuei begiratzen baldin badiogu ikusten dugu gaur egun ikasten ari diren umeen %25 galesez edo modu elebidunez jasotzen dutela klaseak, aldiz Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko datuei begiratzen baldin badiegu, ikusten dugu bertan %55 inguru direla B edo D ereduan ikasten dutenak. Kontutan hartu behar dugu Galesen batasun administratiboa dutela eta lege bakarra lurralde osoan eta aldiz datuak Nafarroakoen antzekoak dira.

Baita ere zalantzak egon daitezke ikusten bai da hezkuntza elebidunari aparteko garrantzia ematen diotela, baina benetan galestarra irakasgai bezala duten ikasleek galestar maila onargarria izaten dute? Eta eskola elebidunentan ikasten dutenak, baina zonalde ingelesen bizi direnak?

Agian esan dezakegu atal honetan hutsune asko daudela ez bai datoz bat bertan duten erreztasunak matrikulazio datuekin.

## **5.The Welsh Language Board / Yr Iaith Gymraeg eta Galeseko iritzi publikoa.**

Atal honetan zehar askotan atera zaigun kontzeptua izan da The Welsh Language Board, baina ez dugu orain arte ondo azaldu zertan datza elkarte hau eta nortzuk osatzen duten.

Orain arte ikusi dugun bezala elkarte honen lan izango litzateke bermatzea galestar hitzunen eskubideak eta galestarra bultzatzeko martxan jarri diren programa ezberdinen inguruan aholkua eta laguntza ematea, programa hauek aplikatzen duten elkarte pribatu zein publikoei.

Welsh Language Board-en itzulpena izango litzateke Hizkuntza Galesaren Kontseilua. 1998an hasi zuen bere ibilbidea eta bere aitzindaria Welsh Office izan zen. Urte horretan bertan 5,8 milioi liberako diru laguntza jaso zuen, hoietako 4,2 milioi libera beste erakundeen artean banatu zuelarik, galestarraren erabilera zabaltzeko eta errezteko eta baita ere galestar hezkuntza bultzatzeko zuzendu zen. Baina Welsh Language Board-ek baita ere europar laguntzak eta laguntza pribatuak jasotzen ditu, hoiek azkenengo urtean 88.000 libera suposatu dute.

Elkarte hau lan egiten du administrazio publikoaren zati ezberdinekin, ekimen pribatuako zen bait enpresekin eta baita ere bolondres elkarteekin, laguntza eta baliabideak eskeiniz hauen bezero edo erabileen hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen.

Welsh Language Board-en zuzendaritza berria 2000ko apirilaren 1ean hasi zuen bere ibilbidea. Kide berriak Tom Middlehurst-ek aukeratzen ditu hau bai da Asanblada Nazionalako Idazkaritzaren hizkuntza arduraduna. Zuzendaritzako kide guztiak bere zerbitzuak 2003ko apirilaren 30arte prestatuko dituzte.

Kideak bizitza publikoaren alor ezberdinetatik datozte, nahiz eta gehien bat politikaren arloan egin bere lana, baina zaiatzen dira ondoren aipatzen dugun alor hauetan adituak bilatzen:

- Hizkuntza plangintza.
- Hezkuntza eta aisia.
- Komunikabideak.
- Ikus entzute produkzioan.
- Negozio eta finantza zuzendaritza.

- Lege sisteman.
- Erlijio eta kultura gaietan.

### **5.1.Euskal Herrian Welsh Language Board-ek izan ditzazkeen antzekotasunak.**

Euskal Herrian ez du parekorik, baina esan genezake Welsh Language Board izango litzatekela Bai Euskarari akordia, Euskaltzaindia, Ikastola Federakundea, Euskara Bilgunea eta Behatokia bilduko luken elkarteak. Alde batetik bere lana hizkuntza normalkuntzarako bidean martxan jartzen diren programa ezberdinen inguruan lan egiten bai du Bai Euskarari akordioa bezala.

Baita ere bere zati bat Galeseko galestar hizkuntza ematen den hezkuntzaren kudeaketa bere ezku du, neurri batean Ikastola Federakundea bezala baina zabalagoa, baita ere bere esku bai dago hezkuntza elebiduna beraz jaurdaritza ezberdinen Eskola Kontseiluen lana ere egiten du. Baina hezkuntza arloan bere lana ere da galestarrez ematen den hezkuntza bultzatzea Euskara Bilgunea egiten duen bezala.

Euskaltzaindiaren lana ere egiten du neurri batean. Ez ditu gramatika inguruko erabakiak hartzen baina bere lana ere da hizkuntzaren inguruko atal ezberdinetan sakontzea bere jakituriak.

Behatokiaren lana ere egiten du, Wels Language Board-en lana ere da hiztunen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

Beraz ikusten dugun bezala zaila da aurkitzea elkarte bat Welsh Language Board-en lana egiten duena. Elkarte honen lana oso zabala bai da eta hizkuntzaren lan arlo guztiak betetzen ditu.

### **5.2.Galeseko iritzi publikoa eta hizkuntza gatazka.**

Galestar hizkuntza aspalditik goera nabarmena ezagutzen ari da, gorakada hau 1993ko Hizkuntza Legea martxan jarri baino lehen hasi zen gertatzen, nahiz eta lege hau jakina denez lagundu zuen hazkunde honetan. Baina azken finean bai lege honen onarpena eta baita Welsh Language Board-en sorrera zuzenki lotuta daude herri presioarekin, batez ere zenbait elkarte zein pertsonak egin zuten presioa.

Gaur egun Welsh Language Board-en helburu bat mende berrian galestarraren bizi iraupena ziurtatzea. Bizi iraupen hau zuzenki gizartearen jokaerarekin lotuta dago, Welsh Language Board-en azkenengo ikasketek adierazten dute galestarrek galesaren presentzia haundiagoa eskatzen dutela eta erabiltzeko aukera gehiago.

Ikerketa hau 1200 elkarrizketen emaitza da eta 2000 urteko uztailean argitaratua izan zen. Ikerketa honen beste emaitza aipagarri bat erabilpenaren ingurukoa da. Honen arabera enpresa haundiek, negozio txikiek eta baita bolondres elkarteek lan haundia egiten ari direla galesaren erabilera zabaltzeko Galeseko eskualde guztietan. Gaur

egun ikerketa honen datuak eskuragarri daude Welsh Language Board-en web orrialdean.

Hizkuntzaren babes politikoaz aztertzerakoan gauzak nahiko argi daude, Galesen dauden alderdi guztiek hizkuntzaren alde egiten bai dute eta elebitasunaren inguruko kontsentsua nazioarte mailako arreta ere piztu du.

Baina gauza guztiak ez daude kontsentsuaren pean Galesen eta honen adibide da, aurtan bertan bizi berri den gatazka: galesa nagusi den eremuetan etorkinen etorrera eta hauen presentzia. Gatazka hau hasi zen Plaid Cymru alderdiko presidenteordea Gwilym Ab Iwan-ek adierazpen batzuk egin ostean. Iwan-ek esan zuen Gales “bitxia eta gizartera egokitzen ez den jendearentzat zabortegea” bilakatzen ari zela. Adierazpen hauen ostean Iwan-ek dimisioa aurkeztera behartua ikusi zuen bere burua.

Baina zenbait sektoreen ustetan gatazkatzat diren beste adierazpen batzuk egon dira. Welsh Language Board-ko (Hizkuntza Galesaren Kontseilu) zuzendari ohi John Elfed Jonesek aheriarekin alderatu zituen etorkinak, baina gero inor mindu bazuen barkatzeko eskatu zuen. Baina hori ez da nahikoa aste berean Eisteddfodoko (Galesen egiten den jai kultural garrantzitsu bat) Batzorde Eragileko zuzendari Eifion Lloyd Jones-ek irakaskuntza ertaina finantzatzeko modua aldatzeko eskatu zuen, eta selektiboagoak izateko galeseraz hitz egiten ez duten sendietako kideak onartzerakoan galeserazko ikastetxeetan eta elebidunetan.

Adierazpen hauen ordaina izan ziren kritika zorrotzak eta arrazakeri salaketak. Baina azken finean adierazpen hauek dira azkenengo urteeta ematen den migrazio fenomeno baten ondorioa. Azkenengo urteetan, lehen esan dugun bezala, galestarraren presentzia gero eta haundiagoa da, baina hazkunde hau tradizionalki ingelesak ziren eskualdeetan ematen ari da, aldez galestarrak ziren eskualdeak erabilera eta ezagutza bera doa. Honen errudun nagusiak Ingalaterratik joaten diren etorkinak dira, ingeles hauek jubilatu ostean bertara joaten bai dira bizitzera, bertako lasaitasunez gozatzeko.

Baina hau ez da sortzen duten arazo bakarra, etxebizitzaren salneurria igoarazten ari direla eta bertakoek ezin dituztela etxeak erosi salatu dute.

Egoera berri honen aurkako jarrera adierazteko aldioro Welsh Language Board (Hizkuntza Galesaren Kontseiluak) eta Cymuned elkarteak zenbait mobilizazio burutzen ari ditu. Cymuned-ek Plaid Cymru (alderdi abertzalea) salatu zuen Alderdi Laboralistarekin batera lasaitasuna eskatzeagatik. Mentera laith Cymru elkartearen arabera, Legebiltzarrak 60 milioi libera erabili behar lituzke galestarra hizkuntza komunitate izatea bermatzeko.

Gatazka hau hobeto ulertzeko ondoren dagoen elkarrizketa interesgarria da. Euskaldunon Egunkariak argitatu zuen elkarrizketa hau eta bertan Gwyn Jonesen-ek esaten du Galeseraz bere hizkuntza politika berrikusi eta aldatu behar du. Hori inor baztertu gabe egin behar dela esaten du. Gwyn Jonesen Welsh Language Board-eko zuzendariordea da.

- **Zergaitik eskatu diezue Galesko politikariei “esnatzeko”? galesaren egoera dela eta, zer ari zarete?**

Hizkuntza Galestarraren Kontseilua (Welsh Language Board) saiatu da Galesko Asanbleari esaten inbertsio gehiago behar dela galestarra etrokizun hobea izateko, seguruago egoteko.

Eskaera hori hasiera-hasieratik azaldu diogu Asanbleari. Aurtengo maiatzean eskatu diogu hizkuntza politika berriz aztertzeko; argi esan diogu hori egin behar dela. Estrategia hori onartuz gero, prezio bat ere izango dela esan diogu.

- **Zer erantzun jaso duzue Asanblearen aldetik?**

Ez dugu oraindik (2001-ko iraiialaren 8-an) erantzunik jaso. Erantzuna etorriko aurtengo urrian aurrekontuak onartzen direnean, horri erantzuten zaionean. Orduan ikusiko dugu kontua zertan dagoen.

Esan behar dut, bestalde, enbora tarte bat itxaron beharko dugula Galesaren Hizkuntza Politikaren berriz aztertzeko prosezua oso-osorik egin arte.

- **Zenbait talde eskatzen ari dira kontu handiz ibiltzeko galestarrez mintzo ez diren gurasoen seme-alabak galesezko eskoletan onartzeko. Beste batzuk horren aurka daude. Zer deritzoszu?**

Galesez mintzo ez direnen seme-alabak baztertzea huts handia izango litzateke, nire iritziz. Ez dugu inor baztertu behar, integratu baizik. Euskal Herrian ere belaunaldi galdua duzue, zeinak ezin zuen euskaraz egin edo ikasi. Jende hori bigarren mailako herritar moduan ikusten badugu, hondamendia izango da. Galestarra Galesen bizi diren guztien ondasuna da, bazterketarik gabe.

## **II. KOMUNIKABIDE DIGITALAK ETA HIZKUNTZA GUTXITUAK**

### **6. Teknologia berriak eta hizkuntza gutxituak.**

#### **6.1. Azken urteetako iraultza.**

Azkenengo urteetan izugarritzko iraultza ezagutu dugu teknologia berriei dagokien esparruan, aditu batzuk 80. hamarkadaren hasieran zioten hirugarren industri iraultza ezagutzen ari ginela. Jakina denez iraultza berri horren oinarria informatika zela. Baina urteak aurrera joan eta fenomeno berri batekin topo egin dugu, internet. Euskaraz internet esan nahi du sareen sarea eta hasiera batean intelijentzia zerbitzuak eta militarrek erabiltzeko jaio zen baina 90. hamarkadaren hasieran gizarte zibilera zabaldu zen iraultza berri bat sortuz.

Hasiera batean ez zirudien bere oiartzuna horren besterako izan behar zela Bill Gates berak ez zuen programa honen alde apostua egin eta behartuta ikusi zen geroago bere Windows berriekin, internetera sarrera zuten programak oparitzera, hau izan zelarik justiziarekin arazoak sortu zioen gaitako bat.

Baina geroago ikusiko dugun bezala internet hankaz gora jarri du komunikabideen arloa, pentsa dezagun gaur egun munduko edozein egunkaria irakurri dezakezula munduko edozein puntuan. Gainera denbora errealean, ez duzu hurrengo goizera itxaron behar egunkaria irakurtzeko.

Gauza berdina gertatzen da irratiarekin. Gaur egun irratiek ez dute uhinen beharra bere emisioak mundura zabaltzeko eta interneten bidez emititzen baldin badute bere emankizunak ez dira lurralde batera mugatzen, baizik munduko edozein lekuan entzun dezakezu.

Baina kontutan izan behar dugu fenomeno hau bere aurrehistorian dagoela eta oraindik asko gelditzen dela aurreratzeko. Hor dago zinema digitalaren erroka, filmeak zuzenean Hollywood-etik emitituko dituztela. Edo baita ere telebista digitala, non erabiltzailea izango da programazioa erabakiko duena.

Baina kontutan hartu behar dugu aurrehistorian gaudela eta etorkizunean ez dakigu ze punturarte baldintzatu dezakete teknologi berri hauek gizartea. Baina iraultza berri honen alderdi guztiak ez dira baiezkorak eta argi ibili behar gara eta kontutan izan interneten munduan gaur egun jaun eta jabe direla kultura eta hizkuntza haundiak, hau da ingelesa batez ere. Beraz ez dakigu zein punturarte baldintzatu dezakeen hizkuntza eta kultura txikien etorkizuna eta bizi iraupena.

Beraz kultura eta hizkuntza txikiak edo gutxituak bere lekua landatzen hasi behar dira, baita ere bere lekua teknologia berrien esparruan borrokatzen eta inbertsioak egiten.

#### **6.2. Teknologi berriak.**

Beraz iraultza honek eragin sakona izan du medien munduan, neurri batean ere esan dezakegu komunikabidea berriak sortu direla, komunikabide tradizionalak eta internet nahasterakoan. Kasu argia izan daiteke irratia digitalarena edo egunkari digitala, hauek komunikabide tradizionalak dira, baina teknologi berrien aplikapenarekin media berrietan bihurtu dira.

Media berri hauek zaiatzen baldin bagara terminu teknologikoetan definitzen, batasun hitzarekin definituko genuke. Hau da, azken finean media berriak dira telekomunikabide, produkzioaren eta informatikaren batasuna.

Baina urte gutxitan teknologi berri hauek izan duten oihartzuna oso garrantzitsua da eta mundu zabalean daukaten erabiltze kopurua kotutan izan behar da. Lau urtetan teknologi berriak 50 milioi erabiltzaile izatera heldu dira. Beste garai batzuetako teknologi "berriekin" konparatzen badugu, zabalpen hau izugarria izan da. Adibidez irratia 50 milioi erabiltzaile lortu zituen 38 urte ostean, telebista erabiltzaile kopuru horretara heldu zen 13 urte pasa ondoren eta ordeagailu pertsonala 16 urte pasa ostean.

E. M. Rogers dioenez, teknologi berri baten zabalpena azkartasuna erabiltzaile kopuruari lotuta dago. Eta gero eta erabiltzaile gehiago gero eta azkarragoa zabalduko da. Hau jakina da, adibidez internet, erabiltzaile kopuru bat behar da web orrialde bat etekinak emateko edo txat batean jendea partehartzeko.

E. M. Rogers-ek erabiltzaileak bost kategoria ezberdinetan banatzen ditu, kategoria hauek egiteko erabiltzen duen irizpidea teknologia berriak onartzeko eta erabiltzeko harrera da.

- Lehenengo taldea berritzaileen taldea litzateke, hau abenturazale talde txiki bat da portzentualki %2,5 suposatzen dutenak.
- Bigarren taldea modu goiztiar batez onartzen dutenak dira, hauek iritzi liderrak dira eta %13,5 suposatzen dute.
- Hirugarrenez gehiengo goiztiarra dago, hauek ez dira iritzi liderrak baina oso garrantzitsuak dira teknologi berrien zabalpenean.
- Laugarrenez gehiengo "atzeratua" dago, hauek erabiltzaileen heren bat suposatzen dute, hauek konbentzitzeko zailak dira eta teknologi berrien aurrean nahiko eskeptiko aurkezten dira.
- Azkenik guztiz eskeptikoak direnak daude, hauek guztiaren seiren bat suposatzen dute eta berritasunak mesfidantzaz begiratzen dituzte.

Herrialdeko azterketa egiten badugu, teknologi berrien harrera harreman zuzena du herrialde bakoitzaren adierazle ekonomikoekin eta baita ere estatu mailarekin. Hau dela eta harrera txikien edo txarrena duten herrialdeak Israel eta estatu espainarra dira,



hauek dira Europako gizarte “garatuetan” teknologi berriak onartzeko oztopo gehien jartzen dituzten gizarteak.

Bigarren talde batean Suedia, Finlandia, Italia eta Erresuma Batuak daude, herrialde hauetan teknologia berriak ez dira erreztasunez onartzen, baina aurreko herrialdetan baino oztopo gutxiago dituzte.

Eta teknologi berriak erreztasun gehien dituzten herrialdeak Suitzan, Danimarka eta Belgika dira. Herrialde hauek teknologi berriei harrera onena ematen dioten herrialdeak dira.

### **6.3. Teknologi berriak eta telebista.**

Ikusi dugu nola hedabide tradizionalak internet uztartu dutela bere lan eran arazo haundirik gabe, aldiz telebistarekin somatu dugun aldaketa bakarra kate gehiagotan itzultzen da, plataforma digitalena hain zuzen ere. Baina non daude telebista munduan gertatu behar diren aldaketa sakonak, irrtati digitalarekin gertatu diren antzekoak? Ba gaur egun itxaron behar dugu, oraindik, telebisten kasua, dauden telekomunikazioa eta kapazitatea direla eta.

Gaur egun internetez informazioa helearazteko erabiltzen dugun banda zabalera ez da nahikoa telebista internet bidez modu duin batez emititzeko. Ez du aukerarik ematen telebisten edukiak etxeetan modu masibo batez kontsumitzeko. Hau dela eta telebisten web orrialdeak egunkarien bezalakoak dira, bakarrik mugatzen dira eskena motz batzuk emititzera zenbait ataletan, gehien bat ezberdintasun puntu bat adierazteko.

Beste aukera bat izango litzateke telebistaren bidez interneten zerbitzuak eskeintzea, hau da telebistari teklatu bat gehituz, estatu espainarrean saiakera hau Quiero plataforma egin zuen, baina badirudi ez ziola emaitza onik eman.

Beraz testuinguru honetan zaia da sinistea internet bidezko telebista dagoenik. Euskal Herrian giza onetan aurkeztzen diren bi esperientzia ditugu: Proyeccion.tv eta tvpi.fr. eta biak erdera hutsean dute beraien web orrialdeak eta baita bere emisioak.

Gai honen inguruan Patxi Azpillaga EHU-ko irakaslea artikulu bat Argia aldizkarian argitaratu zuen. Bertan antzeko hausnarketa bat egiten zuen esanez zaila dela onartzea, gaur egun abian dauden esperientziak internet bidezko telebista bezala izendatzea. Baina aipatzen zuen orain arte egin diren egitasmoak “behe behetik eta modu xumean esperimentatzeko eta ikasteko ahalegina eta ausardia erkusten bai dute”. Aldi berean kritika latza egiten zion beste zaiakera batzuei “hobe horrela, Euskaltelen canal 21 bezalako proiektu erraldoiekin baino, non, diru publiko garrantzitsu bat xahutu den inora ez iristeko”.

Artikulua amaitzen zuen euskarara eta hizkuntza gutxituen inguruko hausnarketa bat egiten eta aldi berean zalaketa “betiko erronkaren aurrean jartzen du honek berriro ere euskalgintza, alegia, presentzia duina ziurtatzearena leku berri hauetan”, “udaletxeek,

diputazioek eta abarrek halako ekimenetarako laguntza publikoak ematean ez al dute inongo hizkuntza eskakizunik egiten?”

Beraz nahiz eta oraindik teknologi berrien arlo hau nahiko hotza egon, kontutan hartu beharreko da ere. Galesen horrelako esperientziarik ez da ezagutzen, bertako telebista S4C badu web orrialde, bertan zenbait atal galestarrez daudelarik. Baditu bi kate digitalak baina hau ez du esan nahi internet bidez emititzen dutenik. Lehena 34 ordu emititzen du galesez eta bigarrena S4C 2-ak Asanblada Nazionaleko eta unibertsitateko informazioa ematera mugatzen da.

## **7. Teknologia berrien zenbait adibide**

### **7.1. Iraultza honen adibide bat: zinema digitala hizkuntza gutxitu eta produkzio txikiaren kalterako?**

Baina esan bezala teknologia berriak iraultza bat suposatu dute komunikabideen munduan eta kontutan hartzen badugu zer nolako harremana duen gizarte arlo honek aisialdiarekin, baita ere aisialdiaren merkatua aldaketa ugari sufritu ditu.

Asialdia eta komunikazioa konbinatzen duen arloa zinema da. Arlo honek azkenengo urteetan gizartean sartu diren teknologia berrien islada izan da, batez ere azkenengo 25 urteetan. Prosezu guzti honi buruz artikulu bat idatzi zuen Euskaldunon Egunkarian Daniel E. Jones Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea dena 2000ko uztailaren 7an. Artikulu horretan zalatzen zuen zer nolako eragina izango duen zinema digitala europako zinemagintzan.

Azkenengo 25 urteetan guztiok izan gara zinema produkzioaren aldaketan lekuko. Bi izan dira azkenengo urteetan eragin handia izan duten fenomenoak zinemarengan, telebista, eta honekin batera etorri diren aldaketa guztiak: kate pribatuak eta telebista digitala eta bideoa. Baina beste eragin handi bat etortzeaz dago zinema digitala eta hau hurrengo bost urteetan gure artean egongo da.

1975an estatu espainarrean 5.076 areto zeuden, baina 1990an kopurua 1.773ra jeitsi zen. 1990an zinema aretoen lehiakide bat indartsu egiten hasi zen, bideoklubak. Baita ere garai honetan telebista pribatua agertu zen eta filme onenak eskeintzeko lehia handitu zen, telebista berri hauen artean eta telebista estatal zein autonomiko publikoak. Jakina denez eta lehia honetan irabazteko apostu nagusia Estatu Batuetako filmeak eskeintzea zen. Honen ondorioa Daniel E. Jones irakaslea azaltzen digu: "Ondorioz, 90-eko urteetako lehen erdian, Espainako zinema ekoizpenak gutxitzen jarraitu zuen, eta aretoetan merkaturatu zenean, Estatu Batuetako filmen hegemonia argiajasan behar izan zuen (9-1 proportzioan)"

Baina kate ezberdinen arteko lehia 90. hamarkadaren bigarren zatian areagotu zen, plataforma digitalak ezarri bai ziren, hauek baita ere Amerikako zinemaren alde apostua egin zuten eta egiten dute.

Zinema aretoetan ere aldaketak ezagutu ditugu. Gero eta gutxiago dira areto bakarreko zinemak herri edo hiri erdialdean daudenak, aldiz gero eta areto anitzeko zinemak daude batez ere merkatal zentruetan kokatzen direnak. Gaur egun Euskal Herrian gutxi dira aintzineko zinemen eredia dutenak eta gelditzen diren gutxiak defizitarioak dira eta udaletxeek gestionatzen dituzte.

Fenomeno honekin 1990 arte ematen zen joera (gero eta areto gutxiago) gelditu zen, are gehiago gero eta areto gehiago ireki ziren. Aretoen kopurua, beraz, berriz ere handitu da (1087-92 bosturtekoarean beheraldi larriena gertatu ondoren), eta 1990an 3.082 zen areto kopurua. Neurri batean hau gertatu da berriro jendea zinemara itzuli delako (batez ere jende gaztea), eta 1999an gutxi gorabehera 82.500 milioi pezeta utzi zituen zineman.

Baina noren ezku daude areto berri hauek? Gehienetan merkatal zentruetan dauden zinemak Estatu Batuetako produktora haundien ezku daude, bereziki Warner, Universal eta Paramount. Horrelako dinamika jarraitzen duten produktorei “major” deitzen zaie. Prosezu guztia kontrolatzen bai dute, hasierako ideiatik azken kontsumoaarte, ekoizpena, banaketa eta erakusketa ahaztu gabe.

Dinamika hau martxan jarri zuen Paramount produktorak 40. hamarkadan, garai horretan kate osoa kontrolatzen zuen, berak egiten zituen filmeak eta berak bere aretoetan ematen zituen. Baina 1948-an epaileek legez kanpo jarri zuten lan molde hau, antimonopolio legeen aurka bai zegoen. Baina idei hau berriro ere 60. hamarkadan berhartu zuten, baina oraingoan bere kontrola ez zen Estatu Batuetako mugetara mugatzen, baizik eta baita atzerrira hedatzeko asmoa azaldu zuten.

Gainera industria hau zabaldu zen lehenago telebistara, telesailen produktorak kontrolatzen eta ordaintzeko telebistan, eta geroago bideo-klubetara. Paramount-ek (Viacom-en jabetza duena) eta Universal-ek (Seagam-ena) osatzen zuten Estatu Batuetako partzuergo hori, eta hala, 1999. urtearen amaieran, gutxi gorabehera 29 lokal eta 157 pantaila zituzten estau espainarrean. Gainera, beste zenbait jardueratan ere ari ziren: zinema banaketa (United International Pictures izenarekin) eta bai mundu osoko bai estatu espainarreko bertako bideo-klub katerik haundiena (Blockbuster). Berrikiago, Warner-ek (AOL Time Warner erraldoiarena) eta Portugalgo Lusomundo taldeak aliantza estrategiko bat egin zuten, eta Espainako PRISA komunikabide taldearekin elakrtu ziren. Hortaz, 1999. urtearen amaieran bost lokal eta 42 pantaila zituzten. Honi gehitu behar diogu, 2000-ko ekainean aisialdirako gunerik handiena ireki zutela Bartzelonan, La Maquinista merkataritza gunean: hamairu areto ta ia lau mila eserleku 7.500 metro koadrotan.

Baita ere bi enpresa hauen presentzia aisiladiaren beste eremutara zabaldu da. Hor daude adibide gisa Warner parkea ireki berri dutena Madrilen eta baita ere Universal-ek Port Aventuran duen partehartzea. Baita ere kontutan izan behar dugu enpresa hauen negozio ere zinemaren inguruko beste arloetara zabaltzen dela “merchandising-a” kasu.

Baina beste berrikuntza etortzear dago, zinema digitala. Hau izango litzateke teknologi berrien aplikapena zinemara. Estatu Batuetako etxe haundiek hasi dira entseguak egiten teknika honekin. Hau zera da, enpresa haundiek zuzenean bidaltzen dituzte satellite bidez filmeen seinalea aretoetara, jakina denez eta lehen aipatu dugun bezala areto hauek beraienak dira. Beraz prosezu guztia erreztu eta guztiz kontrolatzen dute eta bitertakari guztiak ezabatzen dituzte, beraz filme hauek ikustea askoz merkeago

izango da eta kontutan izanez beraienak direla aretoak, ez dute autore eskubiderik ordaindu behar, beraz Estatu Batuarra ez den zinemak arazo haundiagoak izango ditu.

Zinema digitalaren adibidea, teknologia berriek eragina duten esparru guztietara eramanez dezakegu. Ikusi dezakegunez gauza onak ditu, filmak zuzenean emango bai dizkigute eta gainera merketuko da zienmara joatea. Estreinaldiak mundu osoan denbora berberan egin ahal izango dituzte eta ez dugu ain beste itxaron behar.

Baina eragin hau jakina denez beste buelta bat izango du. Daniel E. Jones-ek zalantzan jartzen du espainar zinemaren bizi iraupena, eta Euskal Herrian egiten den zine xumea ze nolako etorkizuna izango du? Eta euskaraz egiten diren filme apurrak? Zalantzaz beteriko etorkizun batekin topo egingo du, gauza bera gertatzen da beste herrialdetan egiten den zinemari, edo beste zalantza bat: Hollywood-eko filmeak hizkuntza gutxituetara itzuliko dituzte? Jakina denez produktora haundiek bere etekinak zainduko dituztela eta ez baldin baditu etekinak ematen, hizkuntza gutxituak baztertuak geldituko dira.

Beraz aurrerapen hau hizkuntza gutxituak baztertzen ditu neurri haundi batean eta ez die leku haundirik ustean normalkuntza prozesuak aurrera ekiteko.

## **7.2. Beste adibide bat: irrati digitala, hizkuntza gutxituen onerako?**

Internet sorrerarekin irrati digitalen fenomenoak ere zabaldu zen. Hasiara batean ohiko irratiek ziren internet bidez emititzen zutenak, azken finean mugatzen ziren bere emisioak interneten bidez emititzera, baina pizkanaka beste erabilpen batzuk aurkitu zituzten. Adibidez aipagarria da nola irrati emisoren web orrialde gehienak bere programazio osoa entzungai jartzen duten, eta edozein ordutan entzun dezakezu aspaldian emandako saio bat. Edo baita ere aipagarria nola erreztu duen entzulearen partehartzea, batez ere e-mail eta txaten bidez.

Baina denbora aurrera joan ala bakarrik interneten bidez emititzen duten irratia sortu dira. Interneten bidez emititzea askoz ere errazagoa da, ez duzu baimena behar dialeko puntu bat okupatzeko, ez dituzu errepitidoreak behar eta gainera ez ditu mugarik edozein lekutan entzun gai zaude, munduko edozein puntuan.

Gainera nahiz eta zuzeneko emankizunak izan, emandako saioak beti egongo dira entzungai web orrialdean.

Honen adibidea da Irratia.com egitasmoa. Horrela aurkezten dute baraien buruak: “Euskal irrati digitala da, Interneten bitartezko euskal irratiak. Ez da irrati emisora bat, ez du uhinen bidez emititzen. Hala ere, gure programazio propioa egingo dugu, zuzeneko emanaldiak barne. Gainera, hainbat irratiren edukia hartu eta sarean bidez zabalduko ditugu eta, azkenik, euskal musikaren ezagutza munduan zehar hedatuko dugu hainbat kanalen bitartez. Saiorik interesgarrienak eta euskal musika onena hemen aurkituko duzu”.

Irrati.com-eko kideek hausnarketa interesgarri bat egiten dute, orain arte gurera etorri dira gainontzeko kulturak zein produktuak. Beraien ustez bada garaia euskaldunok kultura exportatzen hasteko eta gure musika munduan zehar ezagurazteko. Jakinaenez irrati digitala aparteko tresna dela, ez bai da oso garestia eta mundu osoan heltzeko gaitasuna ematen dizu.

Bere oinarria baita ere, orain arte existitu diren irrati txiki eta libreetan egon dadila nahi dute. Hau dela eta euskaraz emititzen duten irrati guzti hauei hedabide bat eskeini nahi diote, irrati hauek duten muga geografikoak hausteko eta euskaraz emititzen diren irratsaio interesgarriak Euskal Herri eta mundu osoan entzun gai egoteko.

Irratia.com-ek duen beste helburu bat euskal musikari dagokiona da. Euskal musikaren entzun eremua askotan Euskal Herrira mugatzen da, beraz hauen helburua muga hori haustea da eta mundu osoan zehar ezagutaraztea.

Beraz Irratia.com hiru hitzekin laburtu dezakegu: irratia, internet eta musika. Jakinaenez horrelako teknologia berriek hizkuntz gutxituentzat abantaila direla eta orain arte ez zuten bide berri bat irekitzen dutela. Emititzeko erreztasuna, muga eza eta gainera bertako musika eta kultura hedatzeko bide berria. Gainera kalitatezko irratsaioak beste ateraldi bat dute.

Gai honen inguruan eta fenomeno hau aztertzen, Arantza Gutierrez Paz EHU-ko irakaslea artikulu bat idatzi zuen Argia aldizkarian 2000ko abenduaren 10an, “irratia dial berrietan” izenburupean.

Artikulu horretan zenbait gauza garrantzitsu aipatzen zituen eta egun gertatzen den iraultza teknologikoa, duela lau hamarkada Maiztasun Modulatuarekin gertatu zenarekin konparatzen zuen.

Positibotzat ez zuen bakarrik aipatzen digitalizazioa emititzeko orduan baita ere aipamena egiten zion estudioetan lan egiteko eran gertatu den digitalizazioa. Zeren eta gaur egun irratiaren lan egiteko era asko erreztu da, “soinu artxiboak grabatu, muntatu, besteekin elkartrukatu eta abar ahal du, testuak balira bezala, edozein unetan, zuzenean emititzeko edo ondoren irratsaio batean sartzeko helburuz”.

Baina iraultza berri honen alderdi positiboa azpimarratzeko adibide egoki ematen du. Duela zenbait urte Euskal Herriko irrati libreak Tas-Tas kontra informazio agentzia martxan jarri zuten, baina garai horretan bitarteko eta lanabes falta izugarria zegoen (duela 10 bat urte buruz ari gara hitzegiten). Lanabes eta bitarteko falta eragiten zuen lan extra bat, honen emaitza izan zen lan gehiago egitea eta irrati hauetan ez dago langilerik kolaboratzaileak baizik eta emaitza irrati asko itxiera eta Tas-Tas egitasmoaren porrota erakarri zuen.

Gaur egun aldiz eta teknologi berriei ezker, Euskal Herriko irrati-askeen kordinakundeak izan zuen ametsa egi bihurtu dute, informazio alternatiboa

elkartrukatzeko sarea osatzekoa, alegia. Dagoeneko zenbait emanaldi bateratuak egin dituzte jai garrantzitsuen inguruan, Araba Euskaraz eta Herri Urrats adibidez.

Arantza Gutierrez Paz-ek baita ere aipatzen du gaur egungo ordenagailuek beste ate bat ireki dutela, 24 orduz emititzeko aukera. Baina beste arlo gaiztoago bat aipatzen du bere artikuluan: “dial digitala-DAD- gauzatuko balitz, analogikoa baztertu edo ezabatu ahalko luke. Horretarako heltzeko oraindik aparailu hartzaileen merkatua finkatu beharko litzatekeen arren-daudenak garestiegiak dira-, arreta handiz jarraitu beharreko prosezua litzateke hori. Irrati handiek dial berrian leku bat ziurtatzeko ahalegina egin duen bitartean (Madrilgo Gobernuak banatutako maiztasunen lehian), txikiak FM eta AM-an baztertuak geratzeko arriskua egon liteke, administrazioak erabakiko dutenaren menpe”. Baina mehatsu honi aurre egiteko irrati txikiek martxan jarri duten emisio moeta berriak aipatzen ditu, internet bidezkoak alegia.

Artikulua amaitzen da teknologi berrien inguruko beste hausnarketa positiboa egiten, batez ere azpimarratzen du hizkuntzan duen eraginari: “irradi bakoitzak bere auzo edo herriko arazoak edo egunerokotasuna azaltzen dizkigu bertakooi ezezik guztioi ere bai, euskalki ezberdinetan, inor baztertua izan gabe... beraz, beste amets zaharra bete da: euskal irrati nazionala jaio da dagoeneko, hau bai guztiona, bertaik bertara eta mundu osora”.

Galesen ez dago antzeko esperientziarik, baina badago egunero internet bidez emititzen duten irratiak, horrela BBC Radio Cymru-k astero 120 ordu emititzen ditu galestarrez uhinen bidez eta baita ere internet bidez. Beste irrati batzuk ere badaude herri mailakoak, programazio elebiduna daukatenak. Hauetako batzuk ere interneten bidez emititzen dute, baina bere hedapena eta kalitatea nahiko txarra da.

### **7.3. Teknologi berriak eta hizkuntza gutxituen irakaskuntza**

Teknologi berriak hizkuntzen irakaskuntza aparteko lanabesa izan daiteke etorkizunean. Jakina da hizkuntza gutxituek ere erabil dezaketela eta jadanik batzuek erabiltzen ari dira. Bi abantai nagusi dituzte, alde batetik arrazoi akademikoak, programa on batek klase tradizionalak baino eragin handiago izan dezake gauzak azaltzeko orduan adibidez, gainera ikaslea ez da lotuta egon behar erritmo batera ezta ordutegi batera ere.

Beste aldetik teknologia berrien aplikapena urrutitik klasea ematea ahalbidetzen dute, jakina denez interneten bidez.

Zornotzako Aurten Bai Fundazioak atal honen inguruan lan txukuna eta sakona egin du. Bere azkenengo sei urteetako apostu nagusia euskara eta teknologi berriak uztartzera zuzendu delarik. Arrazoi nagusia Andoni Unuzaluk Aurten Baiko lehendakaria ematen du: “Hizkuntza bat ikasten dutenek teknologia berrien bidez garatu nahi dute ikasketa prosezua eta orain arteko sistema klasikoa beherantz doa”.

Teknologi berriak hizkuntzak irakasteko ordua gero eta indar haundiago dute bi arrazoi direla medio. Alde batetik, gizarteak eragiten duen denbora ezari aurre egin nahian, lehen aipatu dugun bezala, ikasketa prosezua ondo datorkion orduteian egiteko aukera ematen dio.

Auten Bai Funadazioaren egitasmoa erakunde ezberdinen laguntza izan du, UPV-EHU-ko informatika Fakultatea edo Ibermatika kasu. Baiat ere diru laguntzak jaso zituzte Eusko Jaurlaritzaren eskutik, 1997-an bere egitasmoa EAE-ko industria sailean aurkeztu zuen eta kudeketarako beharrezkoa den %50-a bertaik jasotzen dute. Lagundu egin dien beste erakunde bat Zornatzako Udal Euskaltegia izan da, honekin hitzartu bai zuten zibergela bat jartzea bertan egitasmoa martxan jartzeko.

Programa 1.200 ikasketa ordu ditu eta aparte EGA titulua ateratzeko ikastaroa ere badu. Programaren maila bakoitza ariketa multzo bat du, gramatika argibideak eta Hiztegia 3000 erabilgarri.

Martxan 1999-an jarri zuten eta hasiera batena 15 lagun emanzuten izena, hauek eskolak jasotzen dituztelarik Zornatzoko Udal Euskaltegiko ziber-gelan.

Programa honek hiru erabilera ditu. Lehen erabilera ikas prozesu autonomoa da, ikaslea bere kabuz ikasteko aukera du eta programarekin prozesu guztia garatzeko aukera du. Hala ere, ikasketa prozesua guztiz eraginkorra izateko eta mintzamina praktikatzeko gutxienez astean behin irakaslearekin biltzea gomendatzen da.

Bigarren erabilera ohiko sistemaren osagarri izango litzateke. Ohiko moduez ematen da eskola baina astean behin taldea zibergelara joaten da irakaslearekin.

Hirugarren erabilera programa interneten jartzea izango litzateke. Hau jakina denez mota honetako edozein programaren helburua izango litzateke. Sarean jartzeko hainbat aldaketa egin behar dira. Adibidez irakaslearekin harremana, interneten bidez ikasten duten ikasleek irakaslearekin izango luketen harremana txat baten bidezkoa izango litzateke.

EGA eta goi mailatan azalpenak euskaraz daude baina behe mailatan beste hiru hizkuntzatan ere badaude: ingelesa, frantsesa eta poloniera. Poloniera sartzearen arrazoiak Poloniako unibertsitate batean 40 bat ikasle euskara ikasten ari direlako da.

Lehen aipatu dugu Eusko Jaurlaritzaren industriz sailak aurrekontuen %50-a diru finantzatu duela. Gainontzeko %50 lortzeko Aurten Bai Fundazioa zabaltze paln bati ekin dio. Horrela azaltzen du Andoni Unuzalu lehendakaria: "horrelako ahalegin bat egiten dugunean ez da guk bakarrik erabiltzeko. Guk nahi genukeena da besteen eskuetan utzi eta beste euskaltegiek ere erabiltzea".

Zabaltzearen lana HABE-ren eskuetan utzi dute eta bi irizpide jarraituz egin da. Alde batetik lurraldetasuna, euskaltegi ezberdinen artean banatzeko. Beste aldetik, euskaltegi sareak, proiektua euskaltegi publiko zein pribatuei eskeini.



Zalantza gabe hau da beste teknologi berrien beste aplikapen positibo bat eta azkenengo urteetan asko zabaldu dena. Erreza da sarean aurkitzea hizkuntza klaseak eskeintzen duten web orrialde ezberdinak edo azkenengo urteetan zabaltzen dituzten akademiak askotan multinazionalen esku daudenak, By&bai edo Guay adibide giza. Baina AEK ere bere ahalegina egiten ari da aurten Gasteizko Arana auzoan kokatuta dagoen euskaltegian zibergela bat irekiz eta beste zenbait euskaltegi zein barnetegi informatika materialez hornituz.

Beraz hizkuntzen irakaskuntzan ere aurrera pausuak ematea garrantzitsua da. Eta batez ere “zailak”(euskara eta galesa adibide) diren hizkuntzetan bere irakaspena erreztea oso garrantzitsua izan daiteke etorkizunean eta gaur egun ere.

## **8.Galesa eta teknologia berriak.**

Galesa pixkanaka ere teknologia berrietara egokitzen ari da azkenengo urteetan. Jakina berritze honek ere aparteko islada badu informazio hedabideetan eta baita hedabide tradizionalak (egunkari, irrati eta telebista) nola egokitu diren bide berri hauetara.

### **8.1.Telebista.**

Telebistaren kasuan atal honetan ikusi dugun bezala berrikuntza plataforma digitalen esku etorri da eta ez hainbeste interneten eskutik. Ezinezkoa edo momentuz oso zaila bai da internet bidez emititzea modu masibo batez gutxienez, gaur eguneko banda zabala ez bai du hau ahalbideratzen.

Baina berrikuntzak kate digitalen eskutik etorri dira eta Galesen SC4 galestarrez emititzen duen kate bakarra ez ditu teknologia berriak alde batera utzi eta 1998-ko azaroan bi kate digital martxan jarri zituen.

Lehen katea SC4 egunero galestarrez 12 ordu emititzen ditu eta digitala denez Galesetik kanpo ere ikusgai daude telebista honen produkzioak. Beste katea SC4-2 da eta gehien bat unibertsitate eta Galeseko Asanblada Nazionalaren informazioa emateko erabiltzen da. Kate honek galesa albistearekin bat baldin badator ematen du, hau da, adibidez galestarraren inguruko lege bat onartzeaz badu Asanblada Nazionala albistea galesez ematen da.

Galesen hiru telebista kate dituzte eta gaur egun telebista kate gehinek duten moduan baita ere kate bakoitza bere web orrialdea du. Telebista web gehienak bezala orrialde hauek telebista ezberdinen inguruko informazioa orokorra ematen dute, programazioa, saio ezberdinen edukiak etab. Elebidunak diren web orrialdeak BBC-rena da (nahiz eta ez emititu galestarrez) eta SC4-rena (jakina galestarrez emititzen duen kate bakarra bai da). Aldiz HTV katearen orrialdea ingelesa hutsezkoa da, kate hau batez ere helburu komertzialak ditu eta ez du galestarrez emititzen.

### **8.2. Irratia.**

Irratia ez dago momentuz internet bidez 24 orduz emititzeko egitasmo konkreturik, baina Radio Cymru da Galesko galesez emititzen duen irrati garrantzitsuena badu web orrialdea eta sarearen bitartez entzungai dago eta baita aspaldiko irratsaioak berrezkuratu daitezke. Irrati kate honek ez du bere programazio guztia galestarrez baina bai zati haundi bat 120 ordu astero emititzen bai ditu. Irrati hau BBC-rena da, BBC Britaina Haundiko telebista zein irrati publikoa da.

BBC-k azkenengo urtean ere martxan jarri du albiste atari bat gales hutsez, bertan mundu osoko albizteak eskuragarri daudelarik eta baita bertako albisteak. Atari honekin batera BBC-k sarean eskuragarri jarri du galesaren laburbilduren zerrenda.

Badaude beste irrati kate batzuk sarearen bidez emititzen dutenak, baina hauek lokal mailakoak dira eta bere programazioaren zati haundiena ingelesez dago tarte txiki batzuek galestarrari usten diotela. Baina gehien bat interneten islada dute The Wave, Champion FM, Marcher Beute edo Capital Gold bezalako irratia. Irrati hauek gehien bat musikara zuzendutako irratia dira eta galesaren presentzia oso urria da, batez ere aberti baztuetara mugatzen da.

Interneten azkenengo hilabeteetan egitasmo berri bat sortu da: Wales Radio International edo galestarrez: Radio Rhyngwladol Cymru. Irrati hau internet bidez emititzen du bakarrik baina oraindik probetan dabil. Bere emisioa informazio orokorreko irratsaio batera mugatzen da. Irrati honek dena modu elebidunez egiten du, bai emisoraren inguruko informazioa eta baita bere irratsaioak. Emisora hau Pembrokshire-en kokatuta dago baina bere helburu nagusia kanpoan bizi diren galesak informatuak izatea da.

### **8.3. Galesa eta informatika materiala.**

Asko dira teknologia berriak eta galesa ustartzen zaiatzen ari diren egitasmo ezberdinak. Aipagarria da Welsh Video Network-ek abian jarri duena, enpresa honek martxan jarri du bideokonferentzia sistema berri bat modu automatiko batez denbora errealean itzulpena egiten duena galesetik ingelesera. Beraz London-en dagoen pertsona batekin mantendu dezakegu elkarriketa bat bera ingelesez hitzegiten eta gu galestarrez.

Interneten aurkitu daitezke itzultzaile programa ezberdinak. Welsh Language Board-ek bost itzultzaile gomendatzen ditu: Dêja-vu, Trados, Wordfast, Multicorpora eta SDLX. Baita ere programa batzuk daude, zeintzuek hitzen itzulpenak egiten dituztenak edo baita ere sarean dauden hiztegiak aurki ditzazkegu gai ezberdinetan espezializatuak adibidez: albaitaritzan, nekazaritzan, ekonomian, hezkuntzan eta abar luze bat. Asanblada Nazionalak ere bere hiztegia jarri du sarean, bertan barne prozeduren inguruko hitzak agertzen dira.

Welsh Language Board-ek martxan jarri du orrialde bat laguntzen duena web orrialdi elebidunak diseinatzen. Orrialde hau Daniel Cunliffe Glamorgan Unibertsitateko irakasleak egin du, bertan ere aztertzen delarik zer nolako tratamendua ematen dizkioten erakunde ofizialek galesari beraien web orrialdeetan.

Aipagarria da ere azkenengo urteetan galestar cd-room eta DVD-en ekoizpena izan duen gorakada. Cd-room eta DVD hauek gai ezberdinen ingurukoak dira, baina adierazgarria ume eta gazteentzat egiten den kopuru handia. Kontutan izan behar dugu gizartearen zati honetan kokatzen direla galestar hiztun kopuru haundiena.

### **8.4. Egunkari eta aldizkariak.**

Zenbait egunkari eta aldizkari ere sarean eskuragarri jartzen dute bere informazioa. Galesen bi egunkari handi daude: The Wester Mail eta Welsh Mirror. Egunkari hauek

ingelez hutsean daude eginak baina zenbait albizte eta iritzi artikuluak galestarrez izaten dituzte.

Badaude lokal edo eskualde mailako beste egunkari batzuk sarean web orria dutenak Evening Leader, North Wales Pioner, South Wales Echo bezalakoak baina hauek ez diote galesari tarterik ematen.

Galesen ez dago egunkari nazional bat galestarrez hutsez egina. Baina beste eredu bat jarraitzen dute Ab-Bro delakoak. Hauek ale gutxiko egunkari txikiak dira eta herri edo eskualdeko zabalpena dutenak, agina konragarria da Tolosaldean edo Hernanialdean dauden egitasmoekin. Galesen horrelako 50 egunkari daude galesez egiten direnak, baina bere xumetasunez ideia bat egiteko, hauetatik bakarrik bost dituzte web orrialdeak. Hurrengoak dira: Y Bedol, Y Dinesydd, Papur y Cwm, Plur'r Gweunydd eta Willia.

Badaude baita ere sarean duten aldizkariak, baina bakarra da guztiz galesez dagoena bakarra dago: Y Cymro, Galeseko iparraldearen informazio orokorraren inguruko aldizkaria. Badaude beste batzuk web orrialdea dutenak baina nahiz eta galesan izan zenbait artikulu hauek salbuespena dira, beraz ezin dira ezta elebidunatzat hartu. Honen kasua dira adibide: North Wales Pioner edo Evening Leader.

## **9.Euskara eta teknologia berriak.**

Galesen bezala Euskal Herrian ere teknologi berrien inguruan aurrerapen ugari ematen ari dira. Honen adibide dira agertzen diren web orrialdeak edo baita ere komunikabide ezberdinak digitalizazioaren inguruan egiten ari diren apostuak.

### **9.1. Telebista.**

Aipagarria da batez ere atal honetan EITB (Euskal Irrati Telebista) egiten ari den apostua digitalizazioaren prosezua muturreraino eramateko. Prosezu honen adierazgarri nagusia egoitza aldaketa izango da 2004 urtetik aurrera Iurretatik Bilboko Erakus Azoka gaur egun dagoen lekura joango bai da. Prosezu honetan ere aipagarriak dira Gasteiz eta Baionan ireki berri dituzten egoitza berriak.

EITB-k telebista arloan martxan jarri ditu bi kate digitalak. Bat Europarako emititzen duena eta bestea Amerikaruntz. Kate hauek saio propioak dituzte baina baita ere ETB1 eta ETB2-ren saioak ematen dituzte beraz elebidunak direla esan dezakegu.

Kate hauen bi helburu nagusi dituzte. Alde batetik Euskal Herriaren irudi berri bat zabaltzea munduan zehar eta beste aldetik atzerrian bizi diren euskaldunak eta hauen ondorengoak informaturik eta neurri batean ere “urbildu” Euskal Herrira.

Lehen aipatu dugun bezala Euskal Herrian bi egitasmo daude interneten bidez emititzeko baina hauen kalitatea eskasa eta gainera enpresa hauen emisioak erdera hutsean dira bai frantsesez eta bai gaztelaniaz.

Web orrialdei dagokionez, EITB jakina denez orrialde bat du talde osorako bertan bai irrati zein telebistako albizteak aurkitzen ditugu. Beste telebista txikiago batzuek ere orrialde elebidunak dituzte, Txingudi, Plentzia telebista kasu.

### **9.2. Irratiak.**

Irratiei dagokionez aurreko puntu batean azaldu dugu Irratia.com-en egitasmoa. Beraz ez dugu berriro errepikatuko aurreko puntua. Baina aipagarri da badudela beste irrati batzuek ere internet bidez eta euskaraz edo modu elebidunez emititzen dutenak. Hauen artean EITB-koak daude, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea.

Baina badaude xumeagoak diren beste batzuk, kasu aipagarria da Hala Bedirena. Gasteizko irrati honek nahiz eta librea izan eta ez izan batere komertziala aparteko emisioak ematen ditu interneten bidez. Irrati hau nahiz eta zonalde erdaldun batean egon kokatuta, Gasteiz, bere emisioaren zati haundi bat euskaraz egiten dute. Aipagarria da arraltsadere ematen duten irratsioa Bagazina, ia bi ordu irauten bai du eta euskaraz egina dago.

Badaude beste irrati batzuek ere internet bidez emititzen dutenak adibidez, Tas Tas, Bilbokoa edo Pititako Santurtzikoa. Bi irrati hauek programazio elebiduna egiten dute.

Badaude beste euskal irratiri batzuek ez dutenak interneten bidez emititzen baina web orrialdeak badituztenak: Ttan Ttakun Donostiakoa, Etxarri irratia edo Xoxorri kasu. Hiru irratiri hauek sarean bere etxean gertatzen diren gauzetaz informatzeko web orrialdeak eskegi dituzte sarean eta gainera bakarrik euskaraz.

### **9.3. Euskara eta informatika materiala.**

Euskararen inguruan galesean bezala informatikako errekurtsio ugari sortu dira azkenengo urteetan hauetako asko sarean ere eskuragarri daudelarik. Aipatu dezakegu Microsoft-entzat euskara 20 hizkuntza garrantzitsuenen artean dagoela eta hasi dela zenbait materiala euskaraz ateratzen Windows ospetsua adibide argiena izan daitekela.

Batez ere aipagarria da alor honetan IXA taldeak egin duen lana azkenengo urteetan. Talde honek urte asko darama hizkuntzaren analisia eta ikerkuntzaren inguruko programa ezberdinak sortzen. Aipagarriak dira Morfeus analizatzaile morfologikoa, Xuxen ortografia zuzentzailea edo Euslem lemtitzaile automatikoa.

Hizketa naturalaren sorkuntzan ere Bilboko Ingenieritza Eskolan beste egitasmoa sortu dute Ahotss izenekoa. Programa honen lana testuak ahots bihurtzea da.

Euskara baita ere itzultzaile automatikoak ditu Déjà Vu edo Transit 3.0 bezalakoak. Baita ere aipagarri da Xerox etxea hizkuntza idatziaren identifikazioarako garatutako programa edo [www.uzei.org](http://www.uzei.org) orrialdean hizkuntza naturalaren prosesamendurako hizkuntza-balibideak bilatzen duen programa.

Dena dela oraindik ere euskarak faltan botatzen ditu zenbait programa bere garapenerako garrantzitsuak izan daitekenak adibidez eta oso garrantzitsuak suertatu daitekena: testuan ezagutza automatikoa.

Cd-rom ekoizpena ere azkenengo urteetan gorakada nabarmena izan du. Honen adibide argia ikusten dugu urtero Durangoko Azokan hazten den merkatua. Atal honen barruan aipagarri da nola paperean zeuden zenbait obra garrantzitsuak cd-roomera pasatu dituztela eta moeta honetako zenbait obra bilketa egin dituztela.

### **9.4. Egunkari eta aldizkariak.**

Gaiak aldatuz, sarean ere euskaraz osorik egiten den egunkari bakarra aurkitu dezakegu, Euskaldunon Egunkaria hain zuzen ere. Komentatu dezakegu web orrialde honek egunkari baten funtzioak gaintzen dituela eta bere kalitate ona edozein euskaltzaleentzat bisitatu beharreko tokia bihurtzen du. Badaude euskaraz beste zenbait artikulu edo albizte dakartzaten beste egunkari web gunea dutenak, Gara edo Deia adibidez.

Aldizkariari dagokionez aipagarria da Argia duen web gunea. Web gune honek egunkariarena bezala, kalitate handia bai du. Askotan dira euskal herrian euskaraz

argitaratzen diren aldizkariak eta baita asko ere sarean daudenak, nahiz eta gutxiago izan. Aipagarriak dira gai konkrituak jorratzen duten zenbait aldizkari sarean duten web gunea Entzun musika aldizkaria edo Gazte Txulo gazte aldizkaria.

## **10. Galesa eta euskararen arteko konparaketa teknologia berrien inguruan.**

Oraindik ere zaila da egitea horrelako konparaketa teknologia berriak heldu berriak dira eta oraindik gizartea eta hizkuntza ezberdinek egokitze fasean daude. Kontutan hartu behar dugu internet eta sare honen eratorri guztiak aurre historian daude oraindik, beraz azterketa zabal bat egiteko komeniagarria litzateke hauen norabidea zein izango den argi izatea, gaur egun ezinezkoa delarik.

### **10.1. Teknologia berrien onarpena eta zabalpena gizartean.**

Gales eta Euskal Herriko gizartearen artean teknologi berriak onartzeko garaian ez daude ezberdintasun asko, orokorrean Europar Batasunako estatu ezberdinen gizarteetan nahiko modu uniformeaz onartu bai dira teknologi berri hauek. Baina nonbait beranduago sartu badira Euskal Herrian izan daiteke. Horrelako ikerketarik ez dago egina, baina kontutan hartzen badugu E. M. Rogers-en ikerketa frantziar estatuan eta Britaina Haundian teknologi berriak aldi berean onartzen dira eta estatu espainiarrean beranduago. Beraz kontutan hartzen badugu Euskal Herriaren zati bat estatu frantsesan dagoela eta bestea estatu espainiarrean, Euskal Herrian orokorrean beranduago etorriko dira teknologia berriak.

Populazioaren arabera bi gizarteak antzekoak dira biak bi milioi térdi eta hiru milioien artean bai daude. Baina sarean sartzeko esan dezakegu neurri haundi batean euskarazko eskeintza zabalagoa dela. Adibidez eta oso adierazgarria da galesez dagoen bilatzaie bakarria Google-ena da, hau da ez dago Kaixo edo Aurki bezalakorik.

### **10.2. Telebistaren inguruko aldaera.**

Teknologia berrien komunikabideei dagokionez, telebistaren inguruan antzeko egoera dago, bertako hizkuntza gutxituetan emititzen duten telebistek web orrialde elebidunak dituzte. Kate digitalei dagokionez, biak bai ETB eta baita SC4-k bi kate dituzte baina SC4-ren kate digital bat Asanblada Nazionaleko eta unibertsitateko informazioa eskeintzera zuzenduta dago eta galesez zerbait ematea salbuespena da. Aldiz ETB-ren kateak elebidunak dira eta ETB1-eko saioetaz hornitzen dira.

### **10.3. Irratiaren inguruko aldaera.**

On Line irratia arloan ezberdinasunak ere badadude. Galesen galestarrez emititzen eta bakarrik sarearen bidez emititzen duen irratia bakarria bai dago eta gainera bakarrik irratsaio bat egiten du, zuzenean ez du emititzen eta elebiduna da. Aldiz hor dugu Irratia.com egitasmoa pixkanaka hazten dagoena eta beste irratia txikiago batzuek ere on line entzuteko aukera ematen diena.

Gainontzeko irratiei antzeko gauza, galesez edo euskaraz emititzen duten irratia potenteenak baita ere on line bidez emititzen dute eta aldiz txikienak internet bere informazioa eta programazioa entzuleei helearazteko erabiltzen dute. Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea (euskara hutsez) eta Cymru Radio dira hauek. Badaude Euskal



Herrian beste irrati txikiago batzuk ere internet bidez emititzen dutenak eta programazio elebiduna dutenak, Hala Bedi, Herri Irratia edo Pititako Irratia adibide. Aldiz Galesen emititzen duten gainontzeko irratia ingelesez emititzen dute ia bere programazioa guztia. Emisio elebiduna edo galesez interneten bidez emititzen duten irratirik ez dago.

#### **10.4. Informatikako erreskurtsoen inguruko aldaera.**

Informatikako errekurtsoen inguruko konparaketa egitea nahiko zaila da garapen iraunkor bat bizi duen arloa bai da. Dena dela aipagarria da Welsh Language Board-ek atal honi ematen dion garrantzia, batez ere itzultzaile automatikoei.

#### **10.5. Aldizkari eta egunkarien inguruko aldaera.**

Aldizkari eta egunkarien atalean ere ezberdintasunak daude galesaren egoera alor honetan nahiko xumea bai da. Ez dago on line dauden egunkaririk ikuspegi nazionala duenik, aldiz ba daude lokal mailako eta gales hutsez argitaratzen diren egunkaririk hauetako bost badutela interneten orrialdea. Dena dela bitxia da fenomeno hau, ez dute egunkaririk galesez eta nazio ikuspegi duenik eta aldiz galesez dauden egunkari txiki pila dituzte, 50 inguru.

Euskal Herrian aldiz Euskaldunon Egunkaria dugu. Baita ere sarean aurkitu dezakeguna eta kalitate haundiko web orrialdea duena. Egoera beraz ez da konparagarria. Euskal Herrian ikuspegi nazionalako egunkari anitz ditugun bitartean bertan bi bakarrik dituzte, ondorioz garrantzi haundiago ematen diote gertuko informazioari. Honen erantzule izan daiteke egoera politikoa, bertan egoera nahiko barea denez jendearen interesa modu urbilean eragina duten faktoreetann du interesa eta aldiz Euskal Herrian egoera nahiko gatazkatsua denez, arreta pizten dituzte goi mailako arazo politikoak.

On line dauden aldizkari buruz, esan dezakegu honen inguruan erradiografia bat egitea oso zaila bai da, asko dira interneten web orrialdea duten aldizkariak eta euskaraz edo elebidunak direnak. Entitate publikoenak, elkarte kulturalenak eta abar luze bat. Aldiz galestarrez bilatzaile batean aldizkariak bilatu nahi ezker oso gutxi agertzen dira eta Euskal Herrian ez bezala, edozein elkarte edo erakunde bere ez dute bere aldizkaria argitaratzen.

#### **10.6. Teknologi berriak ekarri dituzten aurrerapenak.**

Dena dela alor honetan aurrerapen ugari eman dira bai galestarraren inguruan eta baita euskararen inguruan. Bi alderdi aipatu ditzazkegu, alde batetik Welsh Language Board teknologi berriei ematen dion garrantzia, adibide argia da lehen aipatu dugun egitasmoa web orrialde elebidunak diseinatzeko. Eta bestetik UPV-EHU-ko zenbait talde euskara, IXA taldea bereziki, euskara informatika eta teknologien berrien munduan egokitze eta normalizatzeko.

Baita ere aipagarria da zenbait web orrialdeak, adibidez Euskaldunon Egunkariarena Euskal Herrian edo Welsh Language Board-ena Galesen.

Baita ere Euskal Herrian eredugarria da Irratia.com bezalako egitasmoa irrati txikiak zituzten mugak hausten bai ditu eta euskara eta Euskal Herriko ekoizpena mundu zabalera zabaltzen bai du.

Nahiz eta aurrerapen ugari eman direla onartu behar bada ere, ez dugu ahaztu behar oraindik goizegi dela horrelako azterketa sakonak egiteko teknologi berriak ez bai daude guztiz zabalduak eta aurrerapen ugari onartzeke daude. Beraz ezin dezakegu aurrerapen inguruko azterketa sakona egin.

### **10.6. Teknologi berriak ekarri dituzten aurrerapenak.**

Gauza bera gertatzen da, akatsak aztertzeko garaian. Gai honen inguruan bai esan dezakegu gauza bat, akats handia izan daiteke telebistek, bai SC4 eta baita ETB ere, kate berriak egiteko garaian jarraitu duten eredia. SC4 bere kate batean bai egin du galesaren aldeko apostua baina bestean ez da ia ezer galesez ematen.

ETB-k bi kate elebidunak egin ditu baina biak atzerrira zuzendutak daude, eukaltzale asko euskarazko bigarren kate baten beharra azpimarratzen ari diren bitartean. Aukera berriak hizkuntza gutxituaren presentzia indartzera zuzendu beharko litzateke.

### **10.8. Teknologia berriek hizkuntza gutxituei eskeintzen dizkioten aukerak.**

Teknologi berrien aukerak oso zabalak dira eta oraindik, baita ere goizegi da azterketa sakona egiteko. Jakina denez aukerak izugarriak dira eta gaur egun ere nabaritzen hasiak dira. Adibidez hizkuntzen irakaskuntzaren munduan, edozein hizkuntza gutxituarentzat honen irakaskuntza oso garrantzitsua da eta teknologia berriak aukera ugari eskeintzen dituzte. Bai didaktikari dagokionez, bide berriak erabili bai daitezke hizkuntzak modu errezago batean ikasteko eta beste aldetik urrunetik ere irakasteko aukera ematen dutelako.

Komunikabidei dagokionez hemen bai daudela aukera ugari. Irratiena kasu garrantzitsua da, ez bai dute uhinen bidez emititu beharrik, honek suposatzen duen kostuekin eta mugekin. Gainera emititutako irratsaioak ere web orrialdetan entzungai egoten dira.

Egunkari eta aldizkariei ere aukera ugari eskeintzen die, irakurlea ez bai da paperezko ediziora itzaroten egon behar. Gainera web orri bat askoz aldizkaria baino merkeagoa da, ez bai du papera eta banaketa ordaindu behar eta gainera iragarkiak edo salmentak egiteko aukera ere badu. Beste aldetik aldizkari batek paperezko edizioan ezinezkoa duen beste zerbitzu batzuk eman ditzake, bideoak, audioak eta abar.

Berrikuntza guzti hauetatik orain arte aukera gutxiago izan duen komunikabidea telebista izan da. Momentuz ezinezkoa egiten bai da internet bidez emititzea modu

masibo batean. Baina baita ere ikusentzuleen papera haunditu egin da internetekin eta gero eta erreztasun haundiagoak dituzte bere iritzia emateko edo zozketa edo dena delakoan parte hartzeko.

Beraz teknologia berriak aukera izugarriak eskeintzen dizkiote hizkuntza gutxituei eta hizkuntza hauek erabiltzen dituzten komunikabidei. Baina oraindik bide luze bat ibiltzeke dago benetan teknologi hauen potentzialitate guztiak ezagutzeko. Dena dela aukera izugarriak eskeintzen dizkiote bai hizkuntza hauen irakaskuntzari eta baita hauen zabalpenari eta normalkuntzari. Jakina denez hizkuntza baten normalkuntzarako beharrezkoa dira komunikabideak.

### **III. EUSKARA ETA GALESA OHIZKO KOMUNIKABIDEETAN**

#### **11. Gales eta Euskal Herriko komunikabideak**

Orain arte teknologi berrien hedatzen diren komunikabideetan sakontzen egon gara. Hemendik aurrera ohizko komunikabideen egoeratan sakonduko dugu.

Lehen esan dugun bezala edozein hizkuntza gutxituan bi faktore garrantzitsuak dira, alde batetik hizkuntza beraren irakaskuntza, baina beste aldetik hizkuntza beraren erabilpena eta horretarako beharrezko dira komunikabideak eta hauen garrantzia gizarte aldaketan ondorioz gero eta garrantzi haundiago izaten dute gure bizitzan.

Ohizko komunikabideak hiru litzateke. Lehendabizi eta gaur egun eragin haundiena duena telebista da, gero irratia egongo litzateke eta azkenik argitalpenak hauek bi multzotakoak dira, alde batetik egunero kaleratzen direnak, egunkariak, eta bestetik noizbehinka kaleratzen direnak, aldizkariak.

##### **11.1. Telebista eta hizkuntza gutxituak Euskal Herrian eta Galesen.**

Esan bezala telebista gero eta eragin haundiago du gure gizartean eta gero eta eskeintza haundiago dugu gure telebistetan. Hasiara batean bakarrik publikoak ziren kateak zeuden, geroago telebista pribatuak sortu ziren eta urte batzuk geroago sortzen hasi ziren lokal mailako telebistak, nahiz eta askok kalitate eskasa izan, bere arrakasta urbileko informazioan eskeintzean datza. Azkenik plataforma digitalak heldu dira, hauek hamarnaka kate ezberdin eta batzuk gaietan berezituak, eskeintzen dituztelarik. Beraz orain dela 20 urte kate bi geneukan baina gaur egun ehundaka kate izan dezakegu ikusgai gure telebistetan.

Jakina denez eta ikusiz zer nolako eragina duen telebista, hizkuntza gutxituak presentzia bat ziurtatzera behartutak daude. Eta horrela gertatzen da bai Euskal Herrian eta baita ere Galesen.

Galesen galestarrez emititzen duen telebista S4C du izena baina ez du guztiz galestarrez emititzen, 30 ordu astero emititzen ditu hizkuntza honetan. Telebista kate hau 1982.an sortu zen eta bere helburu nagusia Galeseko gizarteari zerbitzu bat eskeintzea zen. S4C-ren esanahia Siadel Pedwar Cymru da edo euskarara itzuliz: Galesentzat Katea. Telebista honen ideia zenbaiten buruetan bueltaka zebilen 70-ko hamarkadan, zenbait adituek aukera ikusten zuten zerbitzu publiko bat martxan jartzeko aukera. 81-an Produkzio Lege berri bat bidea libre utzi zuen eta 1982-ko azaroaren 1-an emititzen hasi zen.

S4C berak produzitzen dituen saioak emititzen ditu baina baita ere BBC-k, ITV-k edo produktora pribatuek produzitutakoak ere. Batzutan ere hau legez egin behar duelarik egunero BBC-ko produzitutako 10 ordu emititu behar bai ditu, gainontzeko orduak berak, ITV edo produktore pribatuak produzitutako saioekin betetzen dituelarik.

S4C publikoa da eta beraz diru publikoarekin finantzatzen da, baina behartuta dago diru publiko honen %99 zerbitzu saioetan. 1993-arte bere diru iturri bakarra diru publikoa zen, ezin bai zituen iragarkirik eman. Baina urte horretatik aurrera iragarkiak finantza bide bezala erabiltzeko baimenduta dago eta diru publikotik jasotako laguntza lehen aipatu bezala inbertitu behar ditu.

S4C-ren zuzendaritza aditu independenteak osatzen dute, hauek Kultura, Media eta Kirol Estatu Idazkaritza izendatzen ditu, prosezua ireki baten ondorioz. Beraz edozeinek aurkeztu dezake bere burua S4C-ren zuzendaritzarako.

Galesen beste bi telebista daude HTV eta BBC-Wales. Baina hauek ez dute galesez emititzen ezta modu elebidunez ere. Galestarrez emititzen duen bestelako telebistarik dagoenik ez dugu berririk edo gutxienez interneten ez dute inolako web orrialdirik eta Welsh Language Board ez du hauen inguruko informaziorik.

Euskal Herrian lurralde osorako euskaraz guztiz emititzen duen telebista bakarra dago Euskal Telebista. Eusko Jaurlaritzaren lege dekretu bati esker sortu zen 1982-ko uztailaren 19-an eta bere izaera elkarte anonimo publikoaren da.

Bere sorrerako txostenan azaltzen duenez hiru dira telebista honen helburuak:

- Euskal gizartea informatzea eta hiritarren partehartze politikoa erreztea.
- Euskal kulturala zabaltzea eta batez ere euskara.
- Hiritarren eskubide zein askatasunak bermatzera laguntzea.

Bere lehenengo emisioa 1982-ko abenduaren 31-an izan zen eta lehenengo emisioa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lehendakariaren hitzaldi bat izan zen, garai horretan Karlos Garaikoetxea.

Euskal Telebistaren akziodun bakarra Euskal Irrati Telebista da eta 650 langile inguru ditu.

Euskal Telebista beste kate bat du ETB-2. Baina kate honek bere emisio guztiak gaztelaniaz egiten ditu, kate hau 1986-an sortu zen eta bere helburua ETB-1-en lana osatzea da, gainontzeko herritarrei bere mezua helearaziz.

Euskal Herrian euskara hutsez emititzen duen beste telebistarik ez dago baina badaude zenbait telebista, herri mailakoak, bere emisien zati haundiena hizkuntza honetan burutzen dutenak. Honen adibide dira Arrasate Telebista Deba garaiko eskualdean ikusgai edo Ttipi-Ttapa bortzirietan ikusten dena. Hauek bere emisioen zati haundiena euskaraz egiten dute nahiz eta tarte txikigo batzuk beste hizkuntzei, gaztelania nagusiki, utzi.

Badaude beste telebista batzuek bere emisioak orokorrean gaztelaniaz burutzen dituztenak, baina euskarari ere tartea uzten diotenak bai saio kulturaletan, albiste laburpenetan edo haurrentzako saioetan. Honen adibide dira Canal Gasteiz, Gasteizkoa jakina edo Txingudi Telebista, Irun, Hendaia eta Hondarribiko zonaldean emititzen duena. Baude beste herri telebistak euskarari jaramonik egiten ez diotenak, Canal 4, Nafarroakoa edo Tele Bilbao, Bilbo Haundian.

Azkenik ere euskarari tarterik usten ez dioten telebistak ikusi ditzazkegu Euskal Herrian, hauek ez dira Euskal Herrikoak baina saio bereziak izaten dituzte Euskal Herriko zati ezberdinetara zuzendutak. Hauek dira Telecinco, Antena3, Televisión Española eta Canal Plus hego Euskal Herrian eta Tele France eta honen hiru kateak iparraldean.

## **11.2. Galesa eta euskara irratian.**

Irratiei dagokionez, Galesen galestarrez eta lurralde osoan emititzen duen bakarra Radio Cymru da. Irrati honek gainera ez du bere programazio guztia galestarrez egiten, astero 120 ordu emititzera mugatzen da. Irrati hau BBC-rena da, beraz Britaina Haundiko multimedia talde publiko erraldoiarena da eta ia 25 urte daramatza airean.

Galesen badaude irrati txikien sare garrantzitsu bat. Irrati hauek emisio indar ahula izaten dute eta kultur elkarte, eliz barruti edo auzo elkarteak izaten dira. Hauetako askok badituzte galestarrez eginiko irratsaio batzuk baina normalean, eta Euskal Herrian gertatzen den bezala, helburu informatibo bat dutenez galestarrez aginiko saioak kulturkeri hutsak izaten dira.

Euskal Herrian bezala badaude baita irrati komertzial pila, galesari tarterik usten ez diotenak eta asko jota, irrati formulakoak badira, galestarrez abestutako modazko abestiak jartzen dituzte. Irrati hauen adibide dira: The Wave, Radio Wales BBC-rena, Capital Gold, Champion FM edo Red Dragon Radio.

Euskal Herria Franco-ren diktadudaren pean bizi zen bitartean ezinezkoa zen euskaraz emititzea baina ez hori bakarrik, diktadura bat zenez ere oso zaila egiten zen iritzi propio eta kritiko bat izatea. Egoeraz jabetzeko komentatu behar dugu 1977-arte irratiak orduro konektatua behar zute Radio Nacional de España-rekin honen albizteak emateko. Beraz egoera hau ikusita euskaraz emititzen zuten bakarrek modu klandestino batez egiten zuten edo Radio Popular de Loyola bezala modu erdi-klandestino batez eta traba ugariekin.

Beraz modu ofizial batez eta diru publikoz hornitzen zen lehenengo irrati emisora Euskadi Irratia izan zen. Irrati hau, 1982-ko maiatzaren 20-an egin zen lege bati ezker sortu zen. Lege hori EITB multimedia taldearen sorrera ere suposatu zuen.

Beraz legea onartu ondoren Euskadi Irratia bere emisoak 1982-ko azaroaren 10-an hasi zituen. Euskadi Irratia hasi zituen bere emisioak modu erdi-klandestino batez ez bai zituen oraindik Gobernu Zentralaren baimenak bere esku, baina legea onartu ezker

irradi honen osaketa erlojuz kontrako zirudien modu batez egi bai zen. Legea onartu eta emisioen hasieren artean bost hilabete besterik pasatu bai ziren.

Euskadi Irratia Euskadi Gaztearekin batera gaur egun da, oraindik dena euskaraz emititzen duen irradi bakarra eta Euskal Herri osoan uhinen bidez entzungai dagoen bakarra.

Esan bezala Euskadi Gaztea ere euskaraz guztiz emititzen du eta Euskal Herri osoan entzungai dago. Euskadi Gaztea 90.hamarkadaren hasieran hasi zen eta gazte jendearentzat zuzenduta dago. Bere programazioa gehien bat musikala da. Hasiera batean ere erderazko bertsioa bazuen baina duela urte batzuk desagertu zen.

Euskaraz ordu asko emititzen duen beste irradi bat, nahiz eta elebiduna izan Herri Irratia edo erderaz Radio Popular da. Irrati hau ez da Euskal Herri osoan entzuten baina bai zati haundi batean, Araba eta Gipuzkoan hain zuzen ere. Irrati hau hiru emisora ezberdin ditu Loiolan. Donostian eta Gasteizen. Irrati honen jabetza oso bitxia da ez bai da ez elkarte anonimoa ez da ezta ere talde enpresarial haundi baten jabetza, Jesusen Konpañiarena da. Irrati honen kimua 1959-an sortu zen Segura Irratian aurkitzen dugu, geroago 1962-an Loiolakoa sortu zelarik eta Donostikoa 1963-an.

Irrati honek ez du zuzendaritza organurik, zuzenean herrialdeko apezpikuaren erabakien pean dago. Irrati hauek esku aldaketak ezberdin ezagutu diuzte bere historian, gaur egun ere bere ohizko antolakuntzari jarraitzen diote. Baina garai batez COPE-ren esku egon ziren, COPE elizarena ere bada baina gogoratu behar dugu akordio ezberdinak badituela talde ezberdinekin El Correo adibidez. Herri Irratia bere izarea tradizionala berrezkuratu zuen Antena3 Radio desagertu zenean eta El Correo taldeak martxan jarri zuenean Radio Correo-Diario.

Hauetaz aparte baita ere irradi libre mugimendu indartsu bat egon da eta badago Euskal Herrian. Irrati hauek kordinadora bat osatu zuten orain dela urte batzuek eta markatutako helburuen artean euskarazko emisioak biderkatzea zen euskara normalkuntza eskenatoki batera eramateko. Hauetako batzuk euskara hutsez emititzen dute Donostiako Egia auzoko Ttan Ttakun Irratia edo Beleixe irratia Nafarroa Garaiko iparraldean kokatuta dagoena.

Beste batzuk elebidunak dira eta gaztelaniaz saio gehiago dituzte baina aipagarria da hauen lana zeren eta euskarari gero eta tarte haundiago usten diote nahiz eta zonalde erdaldunetan kokatutak egon. Honen adibide dira Hala Bedi Irratia, Gasteizen, Tas Tas Irratia Bilbon, Irola Irala Bilbon ere edo Pititako Irratia Santurtzin kokatuta dagoena baina ezker alde osorako emititzen duena.

Badaude beste batzuk nahiz eta elebidunak izan bere emisioen zati haundiena euskaraz egiten dituztenak. Honen adibide dira Molotoff Irratia, Hernanikoa edo Txantxibiri Elorrixotik emititzen duena baina Durangalde osorako.

Euskal Herrian beste irrati maila bat badago izaera herritarra duten irratia. Hauek batzutan udaletxeenak dira edo beste batzutan kultur elkarteak dira eta udaletxeen laguntza jasotzen dute. Hautako gehienak elebidunak dira eta asko euskara hutsean ere emititzen dute. Honen adibide dira Oiartzun Irratia edo Etxarri Irratia. Aipagarri da baita ofizialtasun bila daude irratia eta euskaraz bakarrik erabiltzen dutenak adibide dira iparraldeko Gure Irratia eta Irulegi eta Nafarroa Garaiko Euskal Herria Irratia.

Hauek lirarteke euskaraz edo modu elebidun batez emititzen duten irratia. Baina Galesen bezala baude ere euskarari tarterik usten ez dioten irratia, hauetako asko Frantzia eta Espainatik emititzen dute Euskal Herrirako deskonekzioak dituztelarik. Honen adibide dira, Onda Cero, COPE Radio, Cadena SER, France Radio edo Radio Nacional de España eta bere kate ezberdinak.

Baita ere Euskal Herriko irratia daude euskara ez dutenak erabiltzen. Irrati hauek bere egoitzak bertan dituzte eta bere saioak bertakoentzat zuzenduta daude baina ez euskaraz. Honen adibide dira Radio Nervion, Bilbokoa; Radio Gorbea, Gasteizkoa edo Radio Universidad, Iruñeakoa.

### **11.3. Euskara eta galesa prentsa idatzian.**

Prentsa idatziari dagokionez, interesgarriena eguneroko argitaratzen dena, egunkaria. Honen inguruan interesgarria da Jose Ignazio Basterretxea “Hiznet 01-02” Hizkuntza plangintza ikastaroan plazaratutako zenbait iritzi. Jose Ignazio Basterretxeak bere teoria euskara eta Euskal Herrian argitaratzen diren egunkarien inguruan eraiki zuen, baina galesaren egoeran ere aplikagarria da.

Jose Ignazio Basterretxeak kritika zorrotza egiten die gehiengoaren hizkuntzan argitaratzen diren egunkari gehienei. Honen ustez hauek ematen duten irudia ez da gizarte kulturantz bati zor zaiona. Ez bai diote euskarari merezi duen arreta eskeintzen eta eskeintzen dioten apurra euskararen alde lan egiten duten elkarteek epaitegi arazoetan dabilzatenean edo kanpainak (Bai Euskarari adibide) daudenean izaten da.

Euskal medioen jarrera Basterretxearen aburuz bestelakoa da, ”euskal medioek (euskara hutsezkoek), aldiz, gizartearen parterik handiena erdaraz bizi dela eta, sarritan informatzen dio euskaldunari erdaldungoaren errealitateaz”. Nik guzti honi beste galdera bat erantsiko nioke, zein da honen arrazoa gehiengo gutxiengo proportzioa edo beste bat da?

Basterretxeak hizkuntza-erabilearen tipologia interesgarri bat egiten du bere idatzian. Lehenik salbuespen eredu legoke. Hau gertaezn da “gizarte batean bizirik daude hizkuntzetako bat beren orrialdeetan modu sistematikoan ignoratu egiten duten hedabideak klasifika daitezke lehen atal honetan”. Talde honen barne dauden egunkaria ez dute hizkuntza gutxituan ezta ehuneko bosta sartzen eta gainera bi giza taldeen arteko gatazka bultzatzen dute.



Salbuezen-eredua jarraitzen duten egunkariak Euskal Herrian hauek lirateke: El Mundo, El Pais, El Correo Diario Vasco, Diario de Navarra, Diario de Noticias, Periodico de Alava eta Sud Quest.

Dena dela bai Peridico de Alava eta Diario de Noticias-ek nahiz eta ez heldu ehuneko bostara, esan dezakegu euskarari, kasu honetan, errespetu haundiagoa diotela; El Correo, Diario Vasco edo Diario de Navarra-rekin alderatzen badugu.

Bigarren eredia anekdota eredia da. Hauek lirateke ehuneko bost eta hamarraren artean daudenak. Dena dela hauek euskaldunei nolabiteko babes eskeintzen diote bere irtzi artikuluetan, eusklagintzaren inguruan gertatzen diren albizteak isladatzerakoan et abar. Baina ez dute euskaldunen beharrak asetzen.

Lehen aipatu ditugun Periodico de Alava eta Diario de Noticias bi talde hauen tartean egongo lirateke. Zeren eta nahiz eta ez heldu ehuneko bostera, bai eskeintzen diotela euskaldunei babes bat neurri haundi batean. Talde honetan dauden beste egunkaria Deia da. Aipagarria da egunkari honek Lizarra-Garazi akordioa sinatu ondoren hasi zela gero eta garrantzi haundiagoa ematen euskarari. Honen adibide dira hurrengo datuak: 1997-an euskarak izandako tarte % 1,86-koa izan zen, Lizarra-Garazi 1998-ko udan sinatu zen; 1999-an euskarak zuen tarte % 2,90-koa zen eta azkenik 2001-an % 6,13-koa zen, hau delarik gure eskuetara heldu den azkenengo datua.

Hirugarren eredia bonsairena da. “gutxiengotuan idatzitako artikuluen bidez irakurlea munduaz informaturik modu minimo batez edukiko bailuke”. Honen adibide Gara egunkaria da, azkenengo datuen arabera egunkari honek bere albizteen ehuneko hogeia euskaraz idatzitak daude. Beraz nahiz eta oraindik euskara gutxitua izan, euskaldunari informaturik egoteko aukera eskeintzen dio.

Azkenik bi eredu daude baina Euskal Herrian adibiderik ez dutenak, parekotasun-eradia eta hobeste-eredua. Parekotasun eredia izango litzateke hiztun bi komunitateak modu berdinean batez tratatzea. Jose Inazio Basterretxearen iritziz hau gaur egun ametsa besterik ez da eta jakina, hau ametsa bada hobeste eredia ametsen ametsa da. Hobeste eredia hizkuntza gutxituari beste hizkuntzen gainetik aparteko lekua ustea litzateke.

Eredu hauek euskara hutsez argitaratzen ez diren egunkariei aplikatzen zaie. Beraz ez da euskara hutsez argitaratzen diren egunkariei aplikagarria.

Euskal Herrian Euskal Herri osorako egiten den euskara hutsean egunkari bakarra dago, Euskaldunon Egunkaria. Hau da historian zehar euskara hutsean egin den bigarren egunkaria lehena Eguna izan zen 1937-an kaleratzen hasi zelarik, baina guda zibila eta urte hoietako askatasun falta medio bere ateak ixtera behartuta ikusi zen.

Euskaldunon Egunkaria 1990-ko abenduaren 6-an kalera atera zen lehenengo aldiz. Dena dela euskara hutsezko egunkariaren egitasmoa zenbait euskaltzaleen buruetan aspalditik bueltaka zebilen. Hau zela eta zenbait euskaltzale eta kazetari Egunkaria Sortzen egitasmoaren inguruan lanean zebiltzaten, 1989-an modu ofizialez elkarte hau

aurkeztu zelarik. Hasiara batean zenbait arazo izan zituen ez zituen diru laguntza publikorik jasotzen, Eusko Jaurlaritzak esku artean bai zuen antzeko egitasmo bat baina diru publikoarekin egina. Azkenean Eusko Jaurlaritzak bere asmoa baztertu zuen eta hasi zen diru laguntzak ematen Euskaldunon Egunkariari.

Hau lirateke Euskal Herriko egoera egunkariei dagokionez. Noizbehinkako argitalpenen inguruko azterketa bat egitea ia ezinezkoa litzateke eta gutxienez lan oso bat gai honi zuzendu beharko genuke. Euskal Herrian dauden aldizkarien zentsoa egitea oso zaila litzateke, zeren eta edozein elkarte, erakunde, edo dena delakoa bere adierazpen bide ofiziala izatera jotzen du, hau aldizkarietan isladatzen delarik. Aldizkari kopuru handi honek lehen aipatu dugun eredu guztiak beteko lituzke.

Galesko eguneroko argitalpenen egoera nahiko ezberdina da. Bertan nazional mailako bi egunkari daude eta gero normalena izaten da udalerrri, herri edo komunitate bakoitza bere egunkaria izatea, bertako albizteak ematen dituenak.

Honen arrazoi nagusia egoera politikoa da. Galesen egoera politikoa nahiko lasaia da eta nahiz eta bi komunitate bizi eta baita ere kontrako jarrerak izan gizartearen barne, bertako gatazka alor politikora mugatzen da bestelako alorrik kutxatzen ez duelarik. Honen ondorioz jendearen arreta gertuko albizteak pizten du, azken finean bere bizitzetan eragina handiago du. Adibidez Rhonda Cynon Taff-eko hiritar batentzat interesgarriagoa izango da bertan gertatzen diren gauzak eta bertako erakunde publikoek hartzen duten erabakiak, Cardiff-en gertatzen diren gauzak eta hartzen diren erabakiak baino.

Aldiz Euskal Herriko egoera gatazkatsua eragiten du jende askorengan arreta piztea egoera politiko orokorra gertuko gizarte egoera baino.

Galesen dauden egunkariak hiru mailatan banatu ditzazkegu ematen duten informazioaren arabera. Lehenik nazional mailakoak daude, hauek Gales osoan saltzen dira eta munduko informazioa Britaina Haundikoa eta Galeskoa ematen dute. Honen parekoak izan daiteke Euskaldunon Egunkaria, Gara (herriak atala kentzen badiogu), El Mundo eta El Pais. Bi egunkari hauek The Wester Mail eta Welsh Mirror dira.

Bigarren maila batean eskualde jakin batean kokatuta dagoen egunkaria da eta bertan bakarrik saltzen dena. Egunkari horrek munduko informazioa, Britaina Haundikoa, Galeskoa eta zonalde horretako informazioa ematen du. Jakinaenez munduko eta Britaina Haundiko informazioa agentzien bidez lortzen dute, beraz gai hauen inguruan ematen duten informazioa ez da oso zabala. Aldiz gertuko berrien inguruko informazioa ere ematen dute eta atal honetan nazional mailako egunkariak baino gehiago ematen dute. Hauek Periodico de Alava, Diario de Noticias, Diario de Navarra, Diario Vasco edo Le journal du Pais Basque-rekin alderatu ditzazkegu. Hauek informazio orokorra ematen bai dute baina maila handi batean bere informazioa gertuko informazioa ematera zuzenduta dago. Maila honetakoak dira Daily Post (Galesko iparraldekoa) edo Sout Wales Chronicle (hegoaldekoa). Moeta honetako egunkari nahiko daude Galesen 15 inguru.

Hirugarren maila batean gertuko informazioa bakarrik ematen duten egunkariak daude. Egunkari hauek nahiko bitxiak dira guretzako eta Gales osotik zabalduak daude, honen adibide izan daiteke Tolosaldean eta Hernaldean daudenak. Gainera egunkari hauek mugatzen dira hiritar kopuru nahiko txikitara. Egunkari moeta honen kopurua nahiko handia da, kontutan hartu behar dugu Galesen, galestar hiztunak % 20 direla eta galestar hutsez 50 baino gehiago daudela. Galestar hutsean argitaratzen direnak Ab-Bro izenarekin ezagutzen dira. Honen adibide Y Bedol, Willia edo Papury Cwn dira.

Hau da egoera baina hizkuntza tratamenduan sartu gabe. Galestar hizkuntzak duen tartea oso eskasa da eta egunkari gehienak (guztiak ez esateagatik) salbuespen eredu jarraitzen dute. Hau gertatzen da nazional mailako bi egunkariekin eta baita ere eskualde mailakoekin (bigarren multzoan sartu ditugunak). Galesa duen oiartzuna ez da ezta % 5-ra heltzen albizte batzuk eta iritzizko artikulu batzuk kaleratzera mugatzen da.

Galesa eguneroko argitalpenetan oiartzun haundiena gertuko egunkarietan du. Hauetako 50 baino gehiago gales hutsez daude eginak, beste batzuetan egoera oso ezberdinak daude eta lehen aipatu ditugun eredu guztietakoak daude. Kopurua zehaztea oso zaila da zeren eta pila bat daude eta zabalpena oso mugatua dute.

Gales da Europako herrialde bakarra bere hizkuntza gutxitua egunkaririk ez duena (nazional mailakoa). Mercator erakundeak eginiko inkesta baten ondorioz hiztunen herena interesa azaldu zuen horrelako egitasmo baten inguruan. Mercatorren ustez horrelako egunkari bat bidegarria izango litzateke eta urtero bi milioi liberako gastuei aurre egin beharko lioke.

Noizbehinkako argitalpenak aztertzen baditugu eta galesez argitaratuak daudenetara mugatzen bagara, bi daude aparteko oiartzuna dutenak. Golwg (Begirada delakoa) eta Y Cymro (Galestarra). Biak informazio orokorra ematen dute. Golwg-ek 3.500 ale kaleratzen ditu eta Y Cymrok 5.000. galeseko aldizkarien errealitatea ez da Euskal Herrian bezain aberatsa honen arrazoia gizarte mugimenduan aurkitzen dugu, azken finean argitalpen kopurua gizarte mugimenduarekin harreman estua du eta galeseko gizarte mugimendua ez da Euskal Herrikoa bezain zabala ez aberatsa.

## **12.Gales eta Euskal Herriko komunikabideen arteko konparaketa.**

Orain arte ikusi dugu zer nolako oiartzuna duten bai Gales eta Euskal Herriko hizkuntza gutxituak komunikabideetan. Oraingoan konparatuko ditugu, aurrerapenak, akatsak eta aukerak aztertuko ditugu.

### **12.1. Euskara eta galesa duten hedapenaren inguruko konparaketa.**

Galestarra eta euskararen egoera komunikabideetan alderatzen badugu, euskararen egoera ez da batere ona eta bide luzea gelditzen zaio egiteko baina galesa baino hobeagoa da.

Arloz arloko azterketa egiten badugu, aurreko ideia argiago gelditzen da. Telebistan adibidez, Galesen galesez telebista bakarra dago eta gainera ez du bere programazio guztia galesez, egunero 12 ordu emititzen ditu gainontzekoak ingelesez direlarik. Aldiz Euskal Herrian ETB1 dugu bere programazio osoa euskaraz dagoelarik. Galesen herri telebistarik ia ez dago, aldiz Euskal Herrian badaude nahikotxo eta hauetako batzuek euskaraz ere emititzen dituzte zenbait saio, kasu batzuetan hizkuntza gutxitua hobeste egoeran dagoelarik.

Irratiaren munduan dagokionez, irratan ere euskara egoera hobeagoa du. Galesen eta Gales osoan entzuten den irrati bakarra dago galestarrez emititzen duena, Radio Cymru. Irrati hau ez du guztiz galestarrez emititzen, astero 120 ordura mugatzen du bere emisora, gainontzeko orduak ingelesez egindako irratsaioak betetzen dituztelarik. Badaude lokal mailako beste emisora batzuk elebidunak direnak baina ez dago ezta bat ere gales hutsez amititzen duenik. Aldiz Euskal Herrian Euskadi Irratia dugu eta Euskadi Gaztea euskara hutsez egiten dituztenak, gainera herrialde batzuetan ere euskara hutsez egindako irratiak daude Irulegi Irratia, Gure Irratia, Euskal Herria Irratia edo Ttan Ttakun Irratia bezala, programazio elebiduna dutenak zenbatu gabe, Hala Bedi Irratia, Tas Tas Irratia, Txantrea Irratia eta abar luze bat.

Egunkarien munduari dagokionez, baita ere ezberdintasun ugari daude. Egia da atal honetan egoera ezberdina dela, bertan arrakasta gehiago bai dute urbileko albizteak ematen dituzten egunkariak hauetako asko galesez daudelarik baina aipatu behar da Gales dela Europako Herrialde bakarra hizkuntza gutxitua duena eta hizkuntza honetan egunkaririk ez duena. Gainontzeko egunkari garrantzitsuak ez diote inolako garrantzirik eskeintzen galesari. Aldiz Euskal Herrian nahiz eta defizit handia izan arlo honetan gutxienez euskarazko komunikabidea dugu eta beste egunkari batzuetan euskara anekdota egoera gainditzen du.

### **12.2. Euskara eta galesaren aurrerapenak komunikabiden munduan.**

Aurrerapenei dagokionez, azkenengo urteetan aurrerapen gutxi egon dira atal honetan teknologia berrien laguntzarekin emandakoak kentzen baditugu. Euskal Herrian eman zen azkenengo aurrerapena Euskaldunon Egunkariaren kaleratzea izan zen eta 90. hamarkadaren hasieran izan zen. Galesen baita ere aspaldian ez dela egitasmo berri bat

martxan jarri, 80. hamarkadaren hasieratik bertako telebista eta irratia jaio zenetik. Gizarte arloan galesa bai bizi izan ditu zenbait aurrerapen garrantzitsu 96-ko legea hain zuzen, baina honek komunikabideen munduan ez du inolako isladarik izan.

Dena dela denboran atzerago jotzen badugu, aurrerapen izugarria biz izan dute bi hizkuntzek batez ere euskara. 70. hamarkadan, euskara ez zuen tarterik ez irratian ezta telebistan. Bere presentzia zenbait aldizkarietara mugatzen zen, baina 10 urteren buru (ETB 1982-an sortu zen eta Euskaldunon Egunkaria 1991-an) lortu zuen komunikabideen arlo guztietara zabaltzea eta bere lekua egonkortzea.

### **12.3. Galesa eta euskararen akatsak komunikabide munduan.**

Jakina denez hizkuntzen garapen lanean akats ugari egon direla. Lehenik eta bahin aipatu behar dugu legeen zorrozatasuna, lege eta erakundeak zorrozatasun haundiagoa izan beharko lukete komunikabideia diru laguntzak emateko garaian, ez bai da onargarria euskara baztertzen duen komunikabidea laguntza publikoak jasotzea. Erakunde publikoek gutxienerako eskaerak egin geharko lukete, diru laguntzak banatzerako orduan.

Galesari dagokionez, hizkuntzaren garapenean dagoen akats garrantzitsuena egunkari bat ez izatea da. Nahiz eta zenbait ikerketek egitasmo honen bidegarritasuna azaldu oraindik inor ez du zaiakera egin. Galesaren alde lan egiten duten elkarte zein pertsonak ez diote gehiegizko garrantzia ematen komunikabidei, bere indarrak batez ere hezkuntza eta eskubideak bermatzera zuzentzen direlarik.

### **12.4. Euskara eta galesak dituzten aukerak komunikabideen munduan.**

Aukerak, izugarriak dira komunikabideen digitalizazioarekin. Galesari dagokionez mahai gainean dago galesez eginiko egunkari bat kaleratzea, Mercator erakundearen esanetan egitasmo hau bideragarria da. Euskal Herriari dagokionez aukerak EITB-ren ezkutik etorri daitezke, kate honek 2004-an Bilboko Erakus Azokara mugituko da digitalizazio prozesu bat abian jartzeko. Zenbait euskaltzale euskara hutsezko bigarren kate baten beharra azpimarratu dute, beharrezkotzat ikusten dute euskararen garapenerako.

Prensa idatziari dagokionez urbileko albizeak ematen dituen egunkari xumeak ate berri bat ireki dute. Horrelako egitasmoak martxan jarri dira Tolosaldean eta Hernanialdean eta eskualde euskaldunetan baliogarriak suertatu daitezke euskaldunei albizeak helearazteko eta euskarari errespetuak ez duten egunkariak baztertzeke.

Baita ere interesgarria litzateke Jose Inazio Basterretxeak egunkariak hizkuntza parekotasun egoerara heltzeko arau multzoa aplikatzea edo gutxienez hauen aplikapena aztertzea. Aru multzo hau bost puntu osatuta dago:

1. Hedabideek baztertzea hizkuntza eta hiztuna “demonizatzen”dituen argudioak, ha da errespetatzea.

2. Kazetari eleanitzak kontratatzea, Euskal Herria kultur eleanitza denez elebakarra den kazetari batek ikuspuntu mugatua izango du.
3. Hedabideak leku aproposa eskeintzea euskarari.
4. Euskarak lekua izatea egunkarien atal guztietan, ez bakarrik askotan gertatzen den bezala kultur arlora edo folklore albizteak ematera mugatzen dutela.
5. Euskararen egoera dela eta, komunikabideek grafia batua zaintzea.

Galesen esan bezala egunkariaren aukera dute. Baina badirudi galesaren aldeko mugimenduan lehentasunak beste alor batzuetara zuzentzen dituela, irakaskuntza kasu. Galesko beste aukera bat BBC-rekin elkarlana da, BBC-k dituen potentzialitatea baita ere galesa bultzatzeko erabiltzea bide on bat izan daiteke. Ez dugu ahaztu behar Radio Cymru BBC-rena dela eta BBC-k albizteak galesez emateko martxan jarri du lehengo web ataria. Gainera Galesen gatazka politikoa eta galestarraren inguruan kontsentsu politikoa egoteak lan hau erreztuko luke.

### 13. Informazio iturriak.

- [www.alltheweb.com](http://www.alltheweb.com)
- [www.eblul.org](http://www.eblul.org)
- [www.egunkaria.com](http://www.egunkaria.com)
- [www.argia.com](http://www.argia.com)
- [www.bbc.uk](http://www.bbc.uk)
- [www.bwrdd-yr-faith.org.uk](http://www.bwrdd-yr-faith.org.uk)
- [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)
- [www.irratia.com](http://www.irratia.com)
- [www.halabedi.org](http://www.halabedi.org)
- [www.s4c.co.uk](http://www.s4c.co.uk)
- [www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org)
- “Assembly handbook, teh essential guide to the National Assembly for Wales”, (1999) The Wester mail.
- “La prensa y los electores, el mito de la influencia”, Ofa Bezunartea, Mercedes del Hoyo, Iñaki Iriarte, Maria Teresa santos eta Ana Urrutia. Euskal Herriko Unibertsitatea, argitalpen zerbitzua.
- “Los medios de comunicación en el Pais Vasco”, Cesar Coca, Florencio Martinez, Ofa Bezunartea, Jesus Canga, Alberto Mancisidor, Maria Pilar Diezhandino eta Ana Maria Mochales. Euskal Herriko Unibertsitatea, argitalpen zerbitzua.
- Rogers, E. M.(1997). “ New media in European hoseholds”. New York, The Free Press.
- Livingstone/Bovill. “Children and their changing media enviroment”

- Basterretxea, J. I. (2000): “Hedabideak eta hizkuntza, erdararen aldeko erreproduzio mediatikoa” in NOR ikerketa taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, UEU, Bilbo.
- “Gizartea euskara eta komunikabideak”, Edorta Arana, Jose Inazio Basterretxea eta Nakane Jausoro. Hiznet 01-02, Hizkuntza plangintzarako ikastaroa.
- “Euskara eta teknologia berriak”, Andoni Sagarna. Hiznet 01-02, Hizkuntza plangintzarako ikastaroa.
- “Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan”, Patxi Juaristi eta Andoni Barreña. Hiznet 01-02, Hizkuntza plangintzarako ikastaroa.